

Endika Zamalloa protagonista izan duen 'Go!azen' telesailak denboraldia itxiko du gaur

Kultura • Gaur amaituko da 'Go!azen' telesaileko zazpigarren denboraldia. Endika Zamalloa durangarra Aitorren azalean sartu da denboraldi honetan; Aitor Basakabiko mantentze-langilea izan da. Urte konplikatuak izan den arren, ETBn eskaintzen den telesailak fenomeno bat izaten jarraitzen du gazteen artean; telesaila izateaz gainera, bestelako euskarriak ere baditu aurten. • **24**



Durangoko Udalak galdeketaren inguruko informazioa jaso du webgune batean

Informazio guztia 'galdeketa.durango.eus' atarian dago



Martxoaren 14an, PERI 1 Ferrocarril izeneko proiektuaren inguruko galdeketa egingo dute Durangon. Beste modu batera esanda, trenbide zaharreko lurretarako aurreikusita zegoen proiektua geldiarazi edo bultzatu gura duten galdetuko diete durangarrei. Erabaki hori hartzeko beharrezko informazio guztia txosten batean batu dute. Era berean, webgunea martxan ipini dute. • **4**

Leiho berri bat eskoletako jangeletan



Durangaldeko eskola publikoetako jantokietan bertoko eta sasoiko elikagaiak kontsumitzea aldarrikatzen du Berton Bertokoa dinamika. Horretarako, jantoki bakoitzean sukaldea izatea oinarritzko pausoa da. 2021eko abuztuan, sukaldeak eraikiko dituzte Zaldibarren, Atxondon eta lurretan. 2022an Durangoko Zabalarra eskolan. • **2-3**

Beste pauso bat kalitatezko eskola elikadura lortzeko bidean

Hezkuntza Sailak Durangaldeko lau ikastetxe publikotan sukaldeak eraikitzea aurreikusi du. Bertan Bertokoa dinamikak ondo hartu du iragarpena, baina horrek tokiko eta sasoiko elikaduragaz lagunduta joan behar duela gogorarazi du



ESKOLA JANTOKIAK • E.H./J.G.

Mise en place. Halantxik esaten diete sukaldaritzan kozinatzen hasi baino lehenagoko prestaketa lanei. Eta badirudi Durangaldeko eskola batzuetan ere antzera batean da-biltzala. Kozinatzen, oraindino ez. Baina gauza batzuk prestatzen, bai. Albiste honako hau da: Hezkuntza Sailak uda honetan Durangaldeko hiru eskola publikotan sukaldeak eraikitzea aurreikusi du. Iurretako Juan Orobiogoitia institutuan, Zaldibarko eskolan eta Atxondoko eskolan. Datorren urtean, Durangoko Zabalarra eskolan eraikitzea aurreikusi du.

Iragarpen honek Bertan Bertokoa dinamikak urte luzez egindako eskarietariko bati eragiten dio. Dinamikako kideek hainbat bider aldarrikatu dute eskoletan sukaldeak ipintzea, eta, azkenean, badirudi eskari horiek isla dutela Hezkuntza Sailaren asmoetan. Alex Azpiri (Arrigorriaga, 1977) Bertan Bertokoa dinamikako kidea eta Atxondoko eskolako gurasoen elkarteko kidea da. Bere esanetan, Jaurlaritzak iragarritako asmoa "ona" da, betiere, iragarritakoa betetzen bada. "Berbetatik ekintzetara pasatzea da kontua", adierazi du. "Sukalde horiek egin arte ez gara erlaxatuko", dio. Eta zergaitik da esanguratsua albiste? Bada, eskoletan sukaldea ipintzeak ate bat zabaltzen diolako umeen menuak eskolan bertan kozinatzeari. Gaur egun, errealitate hori ez delako Durangaldeko ikas-

tetxe publiko guztietan bermatzen. Mallabiko, Elorrioko eta Berrizko ikastetxeetan adibidez, bai. Bertan kozinatzen dituzte ikasleentzako menuak. Ostera, Traña-Matienan, Atxondon, Zaldibarren, eta Durangoko Landakon zein Zabalaran, ez. Catering enpresa batek eramaten du jatekoa ikastetxe horietara. "Gaur egungo errealitatea da sukalderik ez daukagun eskoletan catering enpresa batek ekartzen duela jatekoa, goizeko lehenengo orduetan. Kamioi bat etortzen da zelanbaiteko tuper erraldoiekin eta jatekoa banatzen du eskoletan. Baina zein da hor datozen produktuen jatorria? Misterioa da", azaldu du Azpiri. "Eskualdean kexa asko egon dira janariaren inguruan, eta azalpenak eskatu izan direnean ez da erantzunik egon", kexatu da.

"Berbetatik ekintzetara pasatzea da kontua. Sukalde horiek egin arte ez gara erlaxatuko"

Horregaitik, jatekoa eskolan bertan prestatzeak elikaduraren kalitateari, tokiko ekoizpenari eta sasoiko produktuei heltzea erraztuko duela uste du Azpiri. Iritzi berekoa da Atxondoko eskolako zuzendari Itxaso Egidazu (Elorrio, 1980). "Sukaldea ipinita, ikastetxeak irabazi egingo duelakoan nago. Kalitatean

Zer diote gurasoek?



ELIXABETE
AGIRRE

Abadiñoko institutua. Abadiño

Zelaieta eskolako eta Abadiñoko institutuko guraso elkarteetan diharduzu. Zelaietaren kasuan, zein da egoera?

Sukaldea daukagu eta janaria bertan prestatzen da. Pauso bat gehiago ematea gura genuke, eta jangela eredu aldaztea. Hurbileko eta sasoiko produktuak sartzea gura dugu.

Abadiñoko institutukoek Matienako eskolako jantokian jaten dute catering-aren bitartez.

Orain jardunaldi trinkoa dute. Iaz 130 gazte geratzen ziren jantokian eta aurtun 20. Zelaietatik doazenez asko igartzen dute kalitate baxuagoa catering-ekoa jaterakoan. Eskolak kudeatzen du jantokia eta sukaldea ipintzeko eskaera egin dute. Guraso elkartetik bat egiten dugu horregaz, gure jantokia ere bada eta. Institutuko arduradunek ere eskari honegaz bat egin dute.



IBON
ARANA

Matienako herri eskola. Abadiño

Momentu honetan, zein egoera duzue Traña-Matienako eskolako jantokian?

Joan den urtera arte janaria izoztuta ekartzen zuten, eta gero berotu egiten zuten (lerro hotza). Orain janaria prestatuta eta bero ekartzen dute (lerro beroa). Catering zerbitzua da. Bertan Bertokoaren bitartez, sukaldea edukitzea eskatu dugu. Berandu eskatu dugu, eskoletarako proiektu bat zegoelako. Orain badakigu eskolak lekuz aldatzeko proiektu hori ez dela egingo, eta, horregaitik, 2019ko azaroan jantokia eraikitzea eskatu genuen. Oraindino ez dugu erantzunik jaso. Hezkuntza Sailak legegintzaldirako aurreikuspenak egiten ditu. Hain berandu eskatuta gatz izango da epe laburrean egitea.

Zenbat menu ematen dituzue?

Herri eskolako umeen txandetan 140 menu inguru ematen dira egunean.



GAIZKA
AGIRREURRE

Zabalarra. Durango

Zein aurreikuspen duzue jantokiari buruz?

Sukaldea eraikitzeko eskaria onartu da Hezkuntza Saileko azpiegitura planean. Noiz eraikiko zain gaude. Ematen du uda honetan ez dela egingo. 2022ko udan eraikiko litzateke.

Zelako jantoki zerbitzua duzue momentu honetan Zabalaran?

Guk ez daukagu sukalderik. Office bat daukagu. Catering enpresak janaria ekartzen du eta office horretan bero mantentzen da. Garbiketa guztia egiteko, harraskak eta horrelakoak ere baditugu.

Zein elikadura mota gura duzue zuen umeentzat?

Bertan Bertokoa ekimenaren barruan sartuta gaude. Gaur egungo kudeaketa eredu aldaztea eskatzen dugu. Gainera, hurbileko produktuak sartu beharko

lirateke. Hurbileko nekazari, abeltzain, arrantzaleenak... Momentu honetan ez dakigu janaria nondik datorren, zenbat denbora daraman izoztuta... Guk kontrakoa gura dugu, bertokoa eta sasoiko produktua. Horrez gainera, umeentzako hezteko leku bat izan beharko litzatekeela uste dugu. Zelan jan, noiz den jaki bakoitzaren sasoia... Hori guztia eskolak barneratu beharko luke eta hezteko leku bat izan.

"Jantokia umeentzako hezteko leku bat izan beharko litzatekeela uste dugu"

Zenbat menu banatzen dituzue egunean?

HHko eta LHko 290 umeek jaten dute jantokian.

Beste herriein batera eskatu duzue sukaldea eraikitzea. Zuen 2022an izango da.

Zabalarrarekiko begirune apur baten falta igartzen dut. Beste zentro batzuetan aurtun eraikiko dituzte sukaldeak, baina Zabalaran ez. Eta eskariak denak batera egin ziren. Uste dut beste begi batzuekin begiratzen dutela. Abiadura berdinean joatea gustatuko litzazuke.

irabaziko dugu. Eta kontuan hartuta ikasleen otordu nagusia bertan egiten dutena dela, zenbat eta kalitate gehiagokoa izan, orduan eta hobeto", dio.

Horrez gainera, eguneroko martxan irtenbide praktikoak aurkitu ahaliko dituztela ere gaineratu du Egidazuk. "Aurrez adostutako menuekin guztia itxita duzu. Sukalde bat ipinita, momentuan kozinatzen duzu, eta beste askatasun bat ematen dizu xehetasunetan sartzeko. Demagun espagetiak tomateagaz egiten ditugula. Baten batek dena delakoagaitik tomaterik barik gura baditu, sukaldea izanda bertan egosiko genuke pasta apur bat. Txikikeriak dira, baina halako txikikeriekin askoz ere irtenbide praktikoagoak topatu daitezke egunerokoan. Gainera, kalitatean irabaziko litzateke", azaldu du.

Sukaldeak eraikitzea udan aurreikusita dagoen arren, momentu honetan honela daude kontu teknikoak: Iurretako Juan Orobiogoitia institutuko eta Zaldibarko eskolako sukaldeen proiektuak idatzita daude. "Eskola horietan, enpresa kontrataziora ateratzea eta obrak egitea falta da", dio Azpirik. Atxondon, "proiektua idazteko prozesua bere amaierara ailegatzten dabil. Atal batzuk amaituta daude eta beste batzuk ez", jakinarazi du Itxaso Egidazuk. Durangoko Zabalarra eskolaren kasuan, Hezkuntza Saileko arkitektoa joan da eraikina ikuskatzera, baina oraindino ez

dute kanpoko arkitektozik kontratatu. Azkenik, Traña-Matienako eskolaren kasua ere aipatu beharra dago. Sukaldeak ipintzeko eskaria gainerako ikastetxeek baino geroago egin zutenez, Hezkuntza Sailak oraingoz ez du bertan sukalderik ipintzea aurreikusi. Horregaitik, Traña-Matienan sukaldea ipintzeko proiektua Zabalarraoagaz batera egitea eskatzen dute Berton Bertokoako kideek.

Tokikoa eta sasoikoa

Ikastetxeetan sukaldeak ipintzeko erabakia hartuta, badirudi Hezkuntza Sailak norabide aldaketa bat marraztu duela eskola elikaduraren ereduari. 2019-2023 Azpiegitura planera jotzea nahikoa da hori sumatzeko. "Lekuan lekuko sukaldeen pixkanakako berreskuratzea" bultzatuko duela dio Hezkuntza Sailak, eta honako pasarte hau ere jasotzen du: "Azken urteotan geroago eta gehiago baloratzen da familien artean eskola-bazkaria eskolan bertan prestatuta izatea". Horrenbestez, badirudi Berton Bertokoa dinamikaren eskariekin eta Jaurlaritzaren asmoak sintonizazio bat hasi dutela.

Dena dela, sukaldeak ipintzea lehenengo harria lirateke etorkizuneko elikadura ereduaren bidean. Horren ostetik, eszenatoki berri bat etorriko da. Elikagaien jatorriari, kalitateari eta sukaldeen kudeaketari buruzko eztabaida, hain zuzen ere.

Eskoletako sukaldeen eta jantokien ikuspegi orokorra, Berton Bertokoak esku hartzen duen Durangaldeko ikastetxeetan				
	Ikasle kopurua	Eskolan bazkaltzen duen ume kopurua	Sukaldeak du. Janaria bertan prestatzen da	Janaria ekarri egiten da
ABADIÑO				
Traña-Matiena Herri Eskola (HH, LH)	300	150*		X
Zelaieta Herri Eskola (HH, LH)	400	315**	X	
Abadiñoko Institutua (DBH)	302	130**		X
ATXONDO				
Atxondo Herri Eskola (HH, LH)	69	57*		X
BERRIZ				
Learreta Markina Eskola (HH, LH)	419	260*	X	
DURANGO				
Landako Eskola (HH, LH)	535	380-400*		X
Zabalarra Eskola (HH, LH)	386	289*		X
ELORRIO				
Elorrio Eskola (HH, LH, DBH)	620	341*	X	
IURRETA				
Maiztegi Eskola (HH, LH)	300	250*	X	
Juan Orobiogoitia Institutua (DBH)	306	184**		X
MALLABIA				
Learreta Markina (HH, LH)	98	72*	X	
ZALDIBAR				
Zaldibar Herri Eskola (HH, LH)	310	195*		X
ZORNOTZA				
Larrea Eskola (HH, LH)	816	659*	X	

** Covid19a baino lehen / * Covid19 garaian



IÑAKO GURRUTXAGA

Juan Orobiogoitia. Iurreta

Orobiogoitian zein jantoki mota duzue?

Iurretan, Maiztegi herri eskolan jantokia dago. Orobiogoitia institutuan, osterak, ez dago sukalderik. Egutero ekarritako eta aurretik egindako janaria jaten dute. Bertan berotu eta banatzen dute janaria. Onartuta dago sukaldea eraikitzea, eta Eusko Jaurlaritzaren planen arabera, aurrean egingo dute.

Pozik hartu duzue albistea?

Berton Bertokoaren irizpide batzuk argi izan ditugu beti. Lehenengo, oinarritzat da eskola bakoitzak bere sukaldea izatea. Alferrik gabilta bertoko produktuak eskatzen janaria beste nonbait prestatzen bada. Orain urte bi horixe eskatu genuen. Gure haurren elikaduraren arloan horixe da garrantzitsua. Institutuan orain bizi dugun egeragaz ordutegi trinkoa dute eta 32-33 geratzen dira bazkaltzera.

Maiztegitik Orobiogoitiara pasatzerakoan, gazteek igarriko dute alde jantokian?

Alde izugarria dago. Maiztegin oso ondo jaten da. Hobetu daiteke, jakina, baina beti egon gara oso gustura. Bat-batean gure seme-alabak Orobiogoitiara pasatzen dira eta ez dute ezer ere jakin gura jantokiaz. Saltoa handia da. Momentuan egindako janaria jatea eta catering zerbitzua ezin dira alderatu.

"Institutuko hezkuntza komunitate osoa ados dago, sukaldea egitea garrantzitsua delako"

Zentroko arduradunekin elkarlanean zabilatzate?

Zentroko arduradunak eta gurasoak bat gatzat gaitu honetan. Inoiz koordinazio arazoak izan ditugu, baina hezkuntza komunitate osoa ados dago, sukaldea ipintzea garrantzitsua delako. Guraso elkarteak, zuzendaritzak eta eskola kontseiluak beti babestu izan dute Berton Bertokoa ekimena. Horrek ere indarra ematen du aurrera egiteko.



SERGIO GALLEGO

Zaldibarko herri eskola

Eusko Jaurlaritzak sukaldea eraikiko du Zaldibarko herri eskolan uda honetan. Zein ibilbideri jarraitu diozue gurasoek hori lortzeko?

Berton Bertokoa dinamikan lanean hasi ginen. Eusko Jaurlaritzagaz berba egiten hasi ginen Durangaldeko eskola publikoetan sukaldeak ipintzeko. Udan egingo dute sukaldea. Bat zatozte Eusko Jaurlaritzak egingo duen proiektuagaz?

Eusko Jaurlaritzako planoak bidali zizkiguten eta batzarra egin genuen udaleko arkitektoagaz, jantokiko arduradunagaz, zuzendariagaz eta udal ordezkariekin. Momentu hartan geure ekarpenak egin genituen. Beste eredu bat proposatu genuen. Merkeagoa zen eta, gainera, espazioa hobeto aprobetxatzen zen. Ondoren, Eusko

Jaurlaritzan batzar bat egin genuen Bilbon. Gure proposamena onartu zuten. Beraz, proiektua prest dago eta onartuta dago.

"Oso pauso garrantzitsua da, baina ez gara hemen geratuko. Hobetzen jarraitu gura dugu"

Pozik zaudete?

Oso pauso garrantzitsua da, baina ez gara hemen geratuko. Hobetzen jarraitu gura dugu. Sukaldeak izan arren, langilerik ez badago, zertarako? Bertoko janaria bertoko ekoizleekin prestatzea gura dugu.

Momentu honetan, zein janari jaten dute umeek?

Momentu honetan, jangela bat da. Catering enpresa batek janaria ekartzen du. Eskolan berotuta jaten dute. Zenbat ume geratzen dira jantokian? 185-190 bat ume jaten dute Zaldibarko jantokian. Orain txandaka jaten dute. Egoera honetan, bazkari orduan galdu egin da haurrak hezteko den momentua, segurtasun neurriengaitik.

Trenbideko proiektuari eta galdeketari buruzko informazioa webgune berri batean ipini dute

Durango Udalak proiektuari buruzko txostena ipini du aste honetan zabalduko 'www.galdeketa.durango.eus' atarian: aurrekarien, gaur egungo egoeraren eta galdeketa osteko aukeren gaineko informazioa aurkitu daiteke

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Hilabete falta da Durango herri galdeketa. Martxoaren 14an herritarrek botoa ematera deituta daude, honako galdera honi erantzuteko: *Ados al zaude PERI 1 TREN-BIDEA proiektua gelditzearekin eta irtenbide bideragarri baten azterketa abian jartzearekin, betiere, herritarren parte-hartzea aintzat hartuta?* Hautu garrantzitsua da, proiektuaren hedadura handiagaitik. Bide horretan, herritarrek ahalik eta iritzirik osatuena izan dezaten, txosten bat landu dute proiektuaren gaineko informazio guztiagaz, eta eguaztenetik martxan dagoen webgune berrian ipini dute: www.galdeketa.durango.eus.

Horrelako lanetan aditua den Hiritik-at enpresak landu du txostena, udalaren aginduz. Udal teknikarien laguntzagaz osatu dute oinarritzko txostena. Hurrengo pausoa txostena udalbatzarreko alderdi guztiekin eta Euskal Trenbide Sareagaz (ETS) eztabaidatzea izan da. "Alderdi guztiek egindako ekarpenak eta ETSk egindako batzuk jaso dira", zehaztu zuen Ima Garrastatxu alkateak martitzeneko prentsurrekoan. Dokumentuan honako informazioa jaso dute, besteak beste: proiektuaren aurrekariak, gaur egungo egoera eta, galdeketa emaitza edozein dela ere, aurrera begira eman daitezkeen urratsak.

Informazio hori guztia webgunean dagoenez eta herritarrei begira denez, ahalik eta "ulerterrazen" ematen ahalegindu dira. "Lengoaia tekniko formatu ulergarri edo praktikoa batera ekarri dugu",

azaldu zuen Hiritik-at enpresako Carlos Renedok.

Herritarrei informazio guztia helarazteko helburuz, lau batzar zabal ere egingo dituzte otsailen zehar: bi euskaraz eta beste bi gaztelaniaz.

Eredu izan guran

Prentsaurrekoan, galdeketa garrantzia azpimarratu gura izan zuen Julian Rios Durango alkateordeak: "Herritarren parte

Ima Garrastatxu: "Alderdi guztiek egindako ekarpenak eta ETSk egindako batzuk jaso dira"

hartzea eta erabakitzeko eskubidea ohiko eta funtsezko erreminta izatea gura dugu Durango. Betiko den erreminta izatea gura dugu". Ildo horretatik, "beste herri batzuetarako eredu" izatea ere gura dute.

Azkenik, prozesuaren garapena defendatu zuen: "Egiten den dena udaleko idazkariak juridikoki ikuskatuta dago, legearen barruan dagoela segurtatzeko".

BATZAR INFORMATIBOAK

Otsailak 16	18:30 euskaraz
Otsailak 17	18:30 gaztelaniaz
Otsailak 23	16:00 euskaraz
	18:30 gaztelaniaz

*Batzar guztiak San Agustin Kultur-gunean izango dira



Julian Rios Durango alkateordea, Carlos Renedo Hiritik-at enpresako kidea eta Ima Garrastatxu Durango alkatea martitzeneko prentsurrekoan.

Galdeketa egunera arte, parte hartzearen aldeko giroa berotuko du Erabakik boluntarioen laguntzagaz

Galdeketa aldeko Erabaki herri plataformak giroa berotu gura du martxoaren 14ko hitzorduari begira. Herritarrek galdeketa parte hartze gonbidatzea da helburua.

Horretarako, boluntarioen laguntza izango dute. Eguazten arratsaldean, deialdi bat egin zieten herritarrei, eta deialdiari erantzun ziotenen artean hurrengo asteetarako ardura eta lanak banatu zituzten.

Herrian zehar kartelak itsatsiko dituzte. Karteletan, parte hartze deitu eta baieztatu ezeztatu erantzunek zer suposatzen duten azalduko dute. Horrez gainera, kalean esku orriak banatzen ari tuko dira eta euren mezua autoan megafoniaren bitartez zabaltzeko asmoa ere badute, plataformako kideek jakinarazi dutenez.



Eguaztenean lana banatu zuten deialdiari erantzun zioten boluntarioen artean.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2021eko otsailaren 12a
19. urtea - 838. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Goretti Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Ainhoa Iraola Mazorriaga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Hitzarmena berritzeko akordioa Zornotzako Plastibor enpresan

Itunak 3 urtetarako iraupena izango du. Soldatetan, kategoria-promozioetan eta bajetan izango du eragina

ZORNOTZA • JONE GUENETXEA

Zornotzako Plastibor enpresan lan hitzarmena berritzeko akordioa lortu dute beharginek eta sindikatuek, eta, horrenbestez, amaiera eman diote asteen hasitako greba mugagabeari. LAB sindikatuak esan duenez, hitzarmen berriak honako arlo hauetan izango ditu berrikuntzak: soldatetan, kategoria-promozioetan eta bajetan. Itunak hiru urtetarako

iraupena izango du eta enpresak ezingo du berau inaplikatu. "Hitzarmen honetan aurrerapauso ikaragarriak jasotzen dira Plastiborreko langileentzat, eta agerian uzten du langileen batasunak eta lan sindikal serio eta konprometituak bere emaitzak ematen dituela", azpimarratu du LABek. Kimika eta automozio arloko enpresa da Plastibor. Enpresak 111 behargin ditu.



Programari hasiera ematen dion sekuentzia elizaren ondoan filmatu zuten.

'Herrixiki' telebista saioa Etxanora ailegatu da asteen

Zuhaitz Gurrutxaga, Mikel Pagadizabal eta lantaldeko kideak Etxanoko inguruak eta herritarrek bisitatzen ibili ziren martitzenean. Datorren astean elizan filmatuko dute

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Badirudi Euskal Telebistako 'Herri Txiki, Infernu Handi' telebista saioa kideak Durangaldeari gustua hartuta dabilzala azkenaldian. Orain dela gutxi, Elorrion eta Abadiñon egon ziren, eta orain Etxanori eskainitako saioa dute esku artean. Zuhaitz Gurrutxaga eta Mikel Pagadizabal aurkezleak

etxanotarrak ezagutzen ibili ziren martitzenean, lantaldeko gainerako kideak lagunduta. Elizaren ondoan filmatu zuten programari hasiera emango dion sekuentzia. Aurreikuspenen arabera, datorren egunean egingo dute grabazioaren bigarren zatia, elizan eta etxanotarren aurrean. Emisio data zehaztu barik dago oraindino.

Trumoitte kultur elkartek aurtan ez du inauteriei lotutako ospakizunik egingo

GARAI • EKAITZ HERRERA

Garaiko Trumoitte elkarteko kideek aurtan ez dute inauteri jairik antolatuko. "Elkarteko kideen artean komentatu izan dugu zerbait egitea, baina osasun egoeragaz gatx ikusten genuen. Horrenbestez, aurtan ez dugu moztarri jairik ospatuko", azaldu du Alazne Sarrigoitia Trumoitte kultur elkarteko kideak. Sarrigoitiak gogora ekarri du iaz inauteriak berreskuratzeari ekin ziotela. "Gogoan dut iaz hamabost bat ume moztarrotu zirela. Ikuskizun txikitxo bat ere egin genuen. Aurtan bide horri jarraitu gura genion, baina, azkenean, ez dugu ezer prestatu", azaldu du.

Aurrera begira

Trumoitte elkarteko kideek aurreragoko datetan dute itxaropena. San Juan jaietan, esate baterako. "Gauza handirik ez, baina ea sinbolikoki bada ere ekitaldi txikitxoren bat egiteko aukerarik badugun", esan du Sarrigoitiak.



Hitzarmena lortu aurretik hainbat mobilizazio egin dituzte.



ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Tel.: 946 816 673
www.zarateyexpe.com

IURRETA Tellitu-n

3 logelatako 6 etxebizitza

2 logelatako 11 etxebizitza

Garajea eta trastelekua barne

Koronabirusa, bidegurutzetan: osasun egoeraren hobekuntza batetik, eta ostalarien geroari buruzko kezka bestetik

Euskadiko Auzitegi Gorenak baliogabetu egin du eremu gorrietako ostalaritza ixteko araua, eta tabernak zabaltzeko aukera eman du. Labi batzordea gaur batuko da egoera epidemiologikoa aztertu eta neurri murriztaile berriak ezarri beharko lirakekeen azaltzeko

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Gozo-garratza. Koronabirusaren argazkia halakoxea izan da asteon, bidean bat egin dute-eta datuen bilakaera onaren gozoak, eta eremu gorrian dauden herrietako ostalaritza zabaldu ahal izateak agintarien aho zaporean utzi duen garratzak.

Zapore gozoak utzitako argazkia argia da. Durangaldeko udalerrietako egoera epidemiologikoa hobera egin du asteon, eta horren erakusle da datuen bilakaera. Joan den asteburuan 75 positibo atze-man baziren ere, kopuruak apaldu egin dira egunak joan ahala. 30 detektatu ziren astelehenean, 14 martitzenean, eta 27 eguaztenean. Elorrio eta Zornotza eremu gorritik laranjara pasatu ziren aste hasieran, eta eurekin batera hobera egin zuten Atxondoko eta Berrizko datuek. Beste udalerrri handi batzuek, Durangok eta Abadiñok adibidez,

eremu gorrian jarraitzen dute eta badirudi egun batzuetan halantxik jarraituko dutela, nahiz eta birusaren intzidentzia tasak jaisteko

Elorrio eta Zornotza eremu gorritik eremu laranjara pasatu ziren aste honen hasieran

joera izan. Eguaztenean honela zeuden bertako intzidentzia tasak: 683koa zen Abadiñon eta 635koa Durangon.

Ostalarien helegitea

Zapore garratzaren argazkia egitea ez da hain erraza, ostalaritzaren jardunari lotuta dagoelako batez ere, eta horrek, zuzenean edo zeharka, eragina izan dezakeelako datozen egunetako datuen bilakaerari. Kontua da Euskadiko Auzitegi Gorenak bertan behera utzi duela

eremu gorrietako ostalaritza ixteari ezarritako araua, eta, horrenbestez, tabernak ateak zabaltzeko aukera dute eskuartean, behin-behinean.

Erabakia ulertzeko, otsailaren 4ra egin behar da atzera. Egund hartan, ostalarien sektoreak helegitea ipini zion eremu gorrian zeuden udalerrietako tabernak ixteko arauari. Helegiteak 5.000 biztanletik gorako udalerrietako ostalariak kontuan hartzen zituen, baina bere eragina biztanleria txikiagoko udalerrietara ere zabaltzen zen. Azkenean, martitzen eguerdian ailegatu zen Euskadiko Auzitegi Gorearen epaia: ostalarien helegiteari eman zion arrazoia behin-behinean, eta, horrenbestez, eremu gorrian dauden tabernak zabaltzea ahalbidetu du. Auzitegiak adierazi zuenez, birus kontaktuen gorakadak Gabonetan familiak



Taberna bateko terraza, lurretan.

elkartu izanagaz izango zuen zerikusia, tabernetako hartu-emanen ondorioz barik.

Mugimendu berrien zain

Dena dela, oraindino ikusteko dago zer gertatuko den ostalaritzagaz. Batetik, Eusko Jaurlaritzak bost

eguneko epea du epaia errekurritzeko. Eta bestetik, Labi batzordea gaur batuko da osasun egoera baloratzeko, eta oso litekeena da tabernei begirako neurri murriztaile gehiago agintzea. Durangaldeko jatetxe eta tabernetakoak agindu berrien zain daude.

“AEBetan oso modu eraginkorrean antolatzen dabilta txertatze kanpaina”

Judit Muñoz abadiñarrak eta Jon Muñoz durangarrak Pfizer txertoaren lehenengo dosia hartu zuten joan zen barikuan

DURANGALDEA • JONE GUENETXEA

Judit Muñoz zientzialari abadiñarra eta Jon Muñoz futbol entrenatzaile durangarra Austinen bizi dira (Texas, AEB). Joan zen barikuan, bikoteak Pfizerren txertoaren lehen dosia hartu zuen. AEBetan txertatze kanpaina zelan antolatzen dabilta azaldu dute.

Zelan dabilta antolatzen txertatze kanpaina AEBetan?

Txertatze kanpaina oso modu eraginkorrean antolatzen dabilta. Joe Biden presidenteak herrialde osoa txertatu gura du udarako, 320 milioi pertsona. Gobernuak erosi ditu jada txertoak, eta doan dira. Mundu guztia txertatu izango

dira, aseguru medikoa ez dutenentzat eta egoera irregularrean daudenentzat ere bai. Kainpaina faseka zatitu dute. 1A fasea osasungintzako eta lehenengo lerroan dabilta langileentzat da. 1B fasea 65 urtetik gorakoentzat eta beste patologia batzuk dituzten 16 urtetik gorakoentzat. 2. fasean,

gainerako herritarrak txertatu dituzte. Momentu honetan, 1B fasean daude eta 35 milioi pertsona txertatu dituzte. Ospitaleetan, osasun zentroetan eta farmazietan txertatzen dabilta. Beste leku batzuk ere egokitu dituzte txertoak emateko. Drive-through delakoetan, kotxean txertatzen zaituzte.

“

Ez da erraza izan hitzordua hartzea txertoa jasotzeko, jendea oso kontzientziatuta dago eta”

Zuek noiz eta zelan hartu duzue txertoa?

Ez da erraza izan ordua hartzea txertoa jasotzeko, jendea oso kontzientziatuta dago eta. Orokorrean, txertoa hartu gura dute. Zentro bakoitzak web orrialde bat dauka hitzordua hartzeko, baina txandak azkar amaitzen dira. Asko ahalegindu eta gero, Austinetik

ordu betera dagoen hiri batean txanda hartzea lortu genuen, azkenengo momentuko kantzelazio batengaitik. Aste osoa ahalegintzen egon eta gero, egun gauean bariku eguerdirako hitzordu bi hartzea lortu genuen.

Zein txerto jaso duzue?

Jon eta biok 1B fasean gaude, Jon diabetikoa delako eta nik asma eta esklerosi anizkoitza ditudalako. Txertoa hartzera joan ginen zentroan ez ziguten horren dokumentaziorik eskatu. Ez dute erritmoa moteldu gura, eta jendeak bere txanda itxarongo duela uste dute. Pfizer txertoaren lehenengo dosia ipini digute eta martxoaren 3an bigarrena jasotzera joan behar dugu. **Zein txerto ari dira erabiltzen momentu honetan AEBetan?**

Pfizer eta Moderna. Horiek dira AEBetan ekoizten direnak. Ezin duzu bietako bat aukeratu. Zentro bakoitzak bata edo bestea erabiltzen du.

Izan duzue zalantzarik txertoa hartzeko?

Izan dugun zalantza bakarra da ea ditugun gaixotasunekin batera garria den. Horixe jakin gura izan dugu. Hitzordua hartu aurretik, Euskal Herriko gure medikuekin berba egin genuen. Baiezkoa eman zigutenean ez genuen zalantzarik izan. Pandemia gelditzeko modu bakarra dela uste dugu. Oso pozik gaude txertoa jaso dugulako.





Gremioen gida

Zurgintza

leike aroztegia & diseinua

NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leikearoztegia.com
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

Iturgintza



UNAI GARAY

ITURGINTZA BEROGINTZA GASA

Instalataile baimendua

659 673 790
unaigaray@yahoo.es

Iturgintza

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

Iturgintza



Ubide iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO 188 PK.

Iturgintza

ALDEKOA-OTALORA iturgintza

BEROKUNTZA - AIREA - GASA INDUSTRI MANTENTZEA

info@aldekoaotalora.com
692 859 779

Zubiaurre, 8 IURRETA
946 202 768
Arzubia 10 B industrialdea, 13-14 pabiloiak
ABADIÑO 944 071 791

Zurgintza



ATERPE AROTZAK

EGUR ERAIKUNTZAK TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com

Dekorazioa

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko altzairuen lakadura eta guztietako zaharberritzeak egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com



Profesionalik onenak zure zerbitzura!



Berrizen, onartu dituzte 2021eko aurrekontuak; kanposantua konpontzea da aurtengo proiektu nagusia

EAJren eta PSE-EEren aldeko botoekin onartu dituzte 2021eko aurrekontuak Berrizko Udalean; EH Bilduk eta Elkarrekin Podemosek kontra bozkatu zuten



Hilerria konponduko dute.

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Joan zen astean egindako osoko bilkuran, 2021eko aurrekontuak onartu zituzten Berrizen, EAJren eta PSE-EEren aldeko botoekin. Berrizek 5.735.276,63 euroko aurrekontua izango du aurtengoan, iazkoa baino %9,11 txikiagoa. Orlan Isoird

alkateak adierazi zuenez, herria berriro izango da helburu nagusietariko bat, eta diru partida bat gordeko dute horretarako. Horrez gainera, 2021eko tasak eta zergak izoztuko dituztela jakinarazi zuen.

Inbertsioetan, hilerria konpontzeko lanek izango dute diru atalik

Berrizek 5.735.276 euroko aurrekontua izango du aurtengoan, iazkoa baino %9,11 txikiagoa

handiena. Lehenengo fasean, 115.000 euro erabiliko dituzte lan horiek egiteko. Alkateak azaldu zuenez, proiektuak 400.000 euroko kostua du guztira. Lehenengo fasearen ostean, soberakina baliatuko dute gainerakoa ordaintzeko.

Bestalde, 57.000 euro erabiliko dituzte Legañoako basoa erosteko, eta 2021ean 30.000 euro ipiniko dituzte beste hainbat proiektu prestatzeko.

EH Bilduko eta Elkarrekin Podemoseko kideek aurrekontuen kontra bozkatu zuten. "Bost puntu proposatu genituen aurrekontuetarako, eta bat bera ere ez duzue kontuan hartu", adierazi zuen Karmen Amezua EH Bilduko kideak. Talde subiranistaren pro-

Hasieran, 115.000 euro erabiliko dituzte kanposantua konpontzeko

posamenetarikoa bat liburutegiko dinamizaziorako partida bat sortzea izan zen, irakurzaletasuna bultzatzeko. "Konfinamendu sasoian, kultura oso garrantzitsua izan da eta orain ere izaten ari da. Beraz, gure ustez, ezinbestekoa da irakurzaletasuna bultzatzea", jarraitu zuen Amezuak.

David Jimeno Elkarrekin Podemoseko kideak, bere aldetik, aurrekontuetan "herriarren parte-hartze aktiboa" bultzatu beharko zela adierazi zuen.

Atxondoko Udalak deskontu bonuen bigarren kanpaina martxan ipini du

Herritarrek udaletxean jaso beharko dituzte 5 euroko deskontu bonuak. Herritar bakoitzak txartel bi jaso ahalko ditu eta abenduaren 31 baino lehen erabili beharko dira

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Otsailaren 8an martxan ipintzekoa zen arren, egun bat atzeratu eta pandemiaren bilakaera ikusi ostean martxan ipini du Atxondoko Udalak deskontu bonuen bigarren kanpaina. "Hasieran, otsailaren 8an hasiko zela iragarri genuen, baina pandemiaren bilakaeraren zain egon gura izan dugu, herriko denda eta taberna guztiek aukera bera izan dezaten", adierazi du Xabier Azkarate alkateak.

Herritarrek udaletxean jaso beharko dituzte 5 euroko bonuak. Herritar bakoitzak txartel bi jaso ahalko ditu eta 2021eko abenduaren 31ra arte erabili ahal izango dira.



Herritarrek udaletxean jaso beharko dituzte bonuak.

2.189 euro Moriako kanpalekuko errefuxiatuei laguntzeko asmoz

Kainabera elkarteak bultzatuta, Elorrioren itsulapikoak ipini zituzten Zaporeak proiektuari laguntzeko asmoz

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

'Itxaropena eta duintasuna elikatzen' lelopean itsulapikoak ipini zituzten abenduan Elorrioren, herriko hainbat taberna eta saltokitan. Kainabera elkarteak bultzatutako ekimenaren helburua Zaporeak elkarteari babesa emanez Moriako (Grezia) kanpalekuko errefuxiatuei laguntzea izan da.

Eskerrak elorriarrei

Kainabera elkarteak kideek sare sozialetan azaldu dutenez, abenduko diru bilketan 2.189 euro batu zituzten guztira. "Kainabera elkartetik eskerrak eman gura dizkizuegu lagundu duzun merkataritza-establezimendu eta tabernoi, baita Elorrioko herritarrei ere", adierazi dute sareetan Kainaberako kideak.

Zaporeak elkarteak

Zaporeak elkarteak hainbat proiektu du, horietariko bat Moriakoa. Zaporeak kanpalekuan dauden errefuxiatuei jaten ematen die egunero. Elkarteak jakinarazi dutenez, ia 2.500 baz-

Kainabera elkarteak kideek eskerrak eman dizkiete Elorrioko herritarrei

kari ematen dituzte egunero, eta, horretarako, hilean 40.000 euro erabiltzen dituzte guztira. Bestalde, bost euro gaz egunero 8 lagunek jaten dutela azaldu dute elkarteak kideak.

Durangaldeko azken albisteak jaso gura dituzu?

Batu Anbotoko whatsapp taldera



Bidali alta
688 635 041
telefono zenbakira

*** Izan zaitez berriemaile ere.**
Bidali zure argazki eta bideoak

 **anboto**

Mallabian Kirol Hiriari buruzko batzar informatiboa egingo dute otsailaren 18an

Eibar futbol klubeko arduradunek azpiegitura berriari buruzko azalpenak emango dituzte



Eibar futbol klubak Mallabiko Areitio gainean eraikiko du Kirol Hiri berria.

MALLABIA • JOSEBA DERTEANO

Datorren astean, Eibar klubak Areitio egingo duen Kirol Hiriaren gaineko egitasmoa aurkeztuko du mallabitarren aurrean. Bilera informatiboa izango da, otsailaren 18an hain zuzen ere, 18:00etan, Kontzejuzarrean.

Segurtasun neurriak zaintzeko, udalak aurretiazko izen-ematea abiatu zuen orain aste bi. Batzazarrean parte hartzeko interesa zu-

Bilera informatiboa Kontzejuzarrean egingo dute eta 30 bat herritar bertaratuko dira

Zenbat batzar antolatu jakiteko, aurretiazko izen-ematea ipini zuten martxan

ten herritarrak udalagaz hartu-emanen ipini dira harrezkero. Azkenean, ia 30 mallabitarrek eman dute izena, eta Kontzejuzarrean gehienezko edukiera kopuru horren bueltan dagoenez, batzar bakarrean batuko dituzte denak. Izan ere, interesaren arabera batzar bat baino gehiago antolatzeko aukera zegoen.



Tramiteak egiten dabilta Izurtzako Udaleko domeinua 'eus'-era aldatu ahal izateko

IZURTZA • J.D.

Izurtzako Udaleko webgunea ez da martxan egon azken asteetan. Gaur egungo domeinuaren (www.izurtza.net) hamar urteko kontratu epea amaitu egin dela da arrazoia, baina berria eskatzeko tramitea zailtasunak ematen dabil, besteak beste, horren arduraren enpresa Arizonan (AEB) dagoelako eta distantziak eta hizkuntzak hartu-emanen zailtzen dutelako. Udal arduradunek azaldu dute webgunea berreskuratzea dela orain lehentasuna. Horregaz batera, domeinua 'eus'-era aldatzeko tramiteak hasiko dituzte, horrela, kudeaketa Euskal Herritik egingo delako eta edozein arazoren aurrean hartu-emanak erraztuko dituelako.

Mañariko Udalak onespena jaso du plaza ondoko zubia aldatu ahal izateko, eta laster ekingo diete lanei

Hilabeteko epean, orain dagoen zubi zaharra kentzea eta berri bat ipintzea aurreikusten du Mañariko Udalak

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Mañariko plazaren ondoan dagoen zubia laster aldatuko dute. Proiektua aspalditik dago prest, baina Confederación Hidrográfica del Cantábrico erakundearen onespena behar zuten. Bada, astelehen honetan jaso dute erakunde horren baietza. Beraz, zubi berria "hurrengo hilean" ipintzea da asmoa, Ainara Otxotorena alkateak azaldu duenez. Aurrekontuetan 31.000 euroko diru atala dute prest lanak egiteko.

Astelehenean jaso zuten Confederación Hidrográfica del Cantábricoren onespena

Apirilean urtebete beteko da zubia itxi zutenetik. Garrantzi handiko zubia da herrian, erre-karen alde bietako biztanleak lotzen dituelako eta joan-etorri

handikoa delako. Zubi zaharra txarto zegoen eta berri bat ipintzea zen udalaren asmoa hasieratik. Azaldu dutenez, 2019tik hartu-emanetan izan dira URA agentziagaz, eta "urgentziatzko

Aurrekontuetan 30.000 euroko diru atala dute prest lanak ahalik eta arinen egin ahal izateko



lazio apiriletik itxita dago plaza ondoko zubia, erre-karen alde bateko herritarrak herriguneagaz lotzen dituen.

gaia" dela adierazi izan diete. Baina azken berba goragoko organo batena zen, Confederación Hidrográfica del Cantábricorena, eta haren onespenari itxaron behar izan diote.



Otxandion 18 herritarrek egin dute eskaera egurraren aprobetxamendurako

OTXANDIO • J.D.

Aramaio alderantza dagoen eta Otxandioko mugatik gertu dagoen zonalde bat garbitu gura du udalak, hango zuhaitzak kenduta. Haritz amerikarrak eta pagoak daude han. Horrela, udalak egur aprobetxamendurako eskaini ditu zuhaitz horiek, eta 18 otxandiarrek erakutsi dute interesa han dagoen materiala aprobetxatzeko. Zuhaitza bota, ebaki eta etxera eramatea interesdunen lana izango da.

Azken urteetan, udalak urtero egin du halako eskaintza: egur aprobetxamendua edo egur sorta. Azken horren kasuan, sortak eginda eta etxera eramateko prest egoten dira.

URAk hasiera emango dio Abadiño uholdeetatik babesteko proiektuari

Zortzi hilabeteko epea egongo da Ibaizabal erreko proiektua idazteko, eta URAk jakinarazi du 107.650 euroko aurrekontua dutela proiektua idazteko

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Abadiño uholdeetatik babesteko asmoz, urteetako eskariari erantzun eta proiektu berri bat martxan ipiniko du URAren Euskal Agentziak. "Abadiñon urak irten egiten du erreko hainbat lekutan, eta URAk detektatuta ditu puntu horiek. Beraz, herria uholdeetatik

babesteko asmoz, proiektu berri bat martxan ipini dute", azaldu du Mikel Garaizabal Abadiñoko alkateak. "Abadiñon askotan daude uholdeak, eta, gainera, oso larriak izaten dira potentzialki", adierazi dute URAko kideek.

Orain proiektua idazteko unea da eta, horretarako, URAk 107.650

euroko aurrekontua du. URAko kideek jakinarazi dute zortzi hilabeteko epea dutela proiektua gauzatzeko. Behin proiektua idatzita dagoenean, lanei ekingo diete.

Herriarrentzat "berri pozgarria" dela esan du Garaizabalek; baita eskaria orain urte askotatik datorrela ere.



Hostal San Blas atzeko berdegunea.



Joan zen zapatuko ekitaldia.

Joaquin eta Alberto gogoan izan dituzte Zaldibarren

Joan den zapatuan urtebete pasatu zen zabortegia amildu zenetik; Zaldibar Argituk erantzukizunak eskatu zituen

ZALDIBAR • JONE GUENETXEA

Verter Recycling zabortegia amildu zela urtebete joan zela gogoratu zuten Zaldibarren, joan zen zapatuan. Urteurrenean Zaldibar Argitu plataformak ekitaldia antolatu zuen Zaldibarren. Lore eskaintza eta elkarretaratzea egin zituzten. Plataformako kideek amildutako zabortegiko Alberto Sololuze eta

Joaquin Beltran beharginak gogoratu zituzten, eta erantzukizunak argitzea eskatu zuten.

Bestalde, goiz horretan bertan, Josu Erkoreka eta Arantxa Tapia sailburuek bilaketa prozesuaren egungo egoera eta egiten dabilzan larrialdi jarduerak azaldu zituzten Zaldibarko zabortegira egindako bisitan.

Orobiogoitia institutuan lapurrak sartu dira eta kalte handiak eragin dituzte

IURRETA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Iurretako Orobiogoitia institutuko iturriek azaldu dutenez, astelehen gauetik martitzen goizera lapurrak sartu ziren institutuan. "Gela guztietan sartu dira eta oso kalte handiak eragin dituzte", adierazi zuten arduratuta Orobiogoitiako kideek.

Lapurrek hainbat kalte material eragin zuten ikasgeletan, baina, horretaz gainera, Euskalteleko kutxatila altxatu eta kable guztiak moztu zituzten. "COVID-19 dela-eta, gela biko ikasleak

konfinatuta daude, baita beste banaka batzuk ere. Orain, sarerik barik gaudenez, ezinezkoa dugu etxean dauden ikasle horiekin konektatu eta materiagaz jarraitu", azaldu zuten ikastetxekoek martitzen eguerdian.

Bestalde, Orobiogoitiako iturriek aitortu dute "etsita" daudela gertakizunen aurrean. "Hezkuntza Sailean laguntza eskatu dugu honi aurre egiteko, baina ez digute eskaini. Abandonu sentsazioa daukagu, etsita gaude", salatu dute.



Gela bateko sarraila apurtuta.

hitz

liburudenda

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

#salduenak

GAUZAK DIRENA BALIRA
Joseba Sarrionandia
(Pamiela)

DENDAOSTEKOAK
Uxue Alberdi
(Susa)

SASIOLA
Mila Salterain
(Alberdania)

Eskaerak WhatsApp-ez eskatu 686 214 964, Bizum-ez ordaindu eta etxean jaso

OINETAKO
PATOLOGIAK
NEURRIRA
EGINDAKO
PLANTILLAK
OINETAKO BESTE
HAINBAT GAITZ

Herriko gudarien kalea, 10 behea - DURANGO - Tel./Faxe: 946 215 404



Hareek denporak!

Itoiz taldearen materiala (1976-1988) batzeko deialdia

Azken hileetan, Itoiz taldea berriro da protagonista. Hain zuzen ere, Doxa ekoiztetxea (*Asier eta Biok* dokumentala egiteaz arduratu zen) rock talde ezagunari buruzko ikus-entzunezko lana prestatzen dabil, eta deialdia egin dute 1976 eta 1988 bitarteko materiala jasotzeko. Artikuluak, argazkiak, bideoak, soinu grabazioak eta abar behar dituzte.

"Orain arte informazio ugari bildu dugu, baina badakigu badagoela argitara atera ez den materiala, eta horixe interesatzen zaigu, profesionala edo afizionatua, kalitatezkoa edo etxekoa izan", esan dute. Durangon, esaterako, Azokan edo San Faustoetan eskaini zituzten kontzertuak, bere saioian Itoiz izenagaz, edo Indar Trabes izenagaz.

Durangaldea asteen

Pentsiodunen manifestazioak bihar eguerdian Durangon, Elorrion eta Zornotzan

Durangaldea | Hego Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak mobilizazioak antolatu ditu Bilbon, Donostian, Gasteizen eta Iruñean zapaturako. Baina neurri murriztaileak direla-eta bertartzea ezinezkoa denez, eskualdeko pentsiodunek manifestazioak antolatu dituzte Durangon, Elorrion eta Zornotzan. 12:00etan hasiko dira hiru herrietan, Durangokoa Andra Maritik, eta Elorriokoa eta Zornotzakoa udaletxe aurreko plazatik.

Paseo bat emanez euskara praktikatu gura dutenentzat, Paseolagun Mallabian

Mallabia | Ibiltzea gustuko duten eta euskaraz gehiago aritu gura duten pertsonentzat, Paseolagun, paseatzeko taldeak antolatu dituzte Mallabian. AEK-k eta Mallabiko Udalak antolatu dute ekimena, eta parte hartu gura dutenek otsailaren 19a baino lehen eman beharko dute izena 663 070 492 telefono zenbakira deituta, Mallabiko liburutegira bertaratuta edo ermua_berba@aek.eus helbidera idatzita.

Abadiñoko EH Bilduren ustez, "zentzugabekeria" da Astolako igerilekuen kontratua Emtesporti berritzea

Abadiño | EH Bilduren esanetan, martxoaren 31n amaituko da egungo kontratua, eta udal gobernu taldearen asmoa Emtesport enpresari kontratua berritzea da; gaur egungo kudeatzailea da Emtesport. "Azken urte honetan, gutxienez 300.000 euro ordaindu dizkiogu Emtesporti itxita egon den igerileku bat kudeatzeagatik. Eta gutxienez diogu, sinsegaitza dirudien arren, posible delako udalak kalte-ordainak eman behar izatea", salatu dute ohar batean.

Iritzia

2021a EUSKARA ERDIGUNEAN JARTZEKO URTEA IZAN DADIN

Pandemia gizadiaren historian mugarri garrantzitsua izango da, eragin sakona izan eta abagune erabakigarrian gertatzen ari delako. Pertsonon izatea, humanitatea eta mundua bera sakonki eraldatzen hasiak diren abagunea. Horrek hizkuntzaren ikuspegitik ere eragiten gaitu. Euskal Herria euskalduntzeko prozesua burutzetik urrun gaudenean, pandemiaren eta aldaketa-abagunearen astinaldiek prozesu horretan kostata eraiki ditugun zutabeak dar-dar batean uzten ari dira. Euskalduntzea ondo ez doanaren adierazleak begi-bistan ditugu, pandemiarekin okerrera egin duten adierazleak. Horrela, pandemiak aukeratzeko atakan jarri gaitu: azken hamarkadetan aurreratutakoa irabazpidean jartzeko normalizazio-prozesuan jauzi kualitatibo eta kuantitatibo esanguratsua egin, ala, hori egin ezean berriz ere atzerako joeran erori.

EHeren ustez jauzi hori egiteko hizkuntza-politika berria behar dugu. Horrek eskatzen du eragile guztiek beraien jardunaren erdigunean euskara kokatzea, euskaratik eta euskaraz pentsatu eta aritzea behingoz.

Euskalduntzea bizkortzeko borrokak berrindartzea euskaltzaleon erronka izango da aurrean. Euskaldunon hizkuntza-eskubideen eguneroko urraketak agerian utzi eta euskaraz bizi ahal izatea oztopatzen digun zapalkuntza estrukturala salatu eta gainditzeko euskaltzaleen aktibazioa sustatzearen erronka.

Hori guztia estatuen kanpo esku-hartzerik gabe egin behar denaren aldarrikapena ere areagotu beharko dugu. Hori baita pairatzen dugun hizkuntza-gatazkaren muina: estatuen inposizio linguizida. Euskal herritarrok soilik erabaki behar dugu zein nolako hizkuntza-politika garatu nahi dugun Euskal Herrian. Horri begira EHEk ekarpen garrantzitsua egingo du aurrean. Ilusioa eta grina berreskuratu eta euskalduntzearen aldeko borroka berrindartzeko urtea izan dadin 2021 hau.

Urko Aierbe Sarasola. Euskal Herrian Euskarazeko kidea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:
Bixente Kapanaga 9. - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

Politikan

Mireia Elkoroiribe
Zenikaonandia
EAJ



Pedalei eragiteko ordua da

Bizitza hainbeste zaildu digun pandemia izugarri hau hasi zenetik, ia urtebetera iritsi gara. Urte bereziki luzea eta gogorra egiten ari da, eta, beraz, gero eta gehiago kostatzen da animoak, positibismoa eta ilusioa mantentzea.

Baina, egia esan, pertsona gehienek prest jarraitzen dute COVIDen aurka pedalei irmoki eragiteko. Zentzu figuratuan diot, jakina, osasun-langileak edo irakasleak, besteak beste, eta oro har, pertsona gehienak egiten ari diren aha-legin handiari dagokionez.

Eta hitzez hitz ere esaten dut. Izan ere, gero eta gehiago gara eguneroko mugikortasunean pedalei eragiteko prest gaudenak. Esango nuke hori dela COVIDek ekarri duen gauza positibo bakarrenetakoa; izan ere, pandemiaren aurrean bitarteko seguruena dela frogatzeaz gain, gure osasuna, ingurumena eta ongizatea hobetzen laguntzen du.

Orain bitartekoak jarri behar ditugu bizikletan ibiltzea gero eta errazagoa eta seguruagoa izan dadin. Bidegorrien sarea amaitu behar dugu, seinaleak hobetu, bizikletentzako aparkaleku kopurua handitu, eta, jakina, pertsonen informazioa eta prestakuntza eman, oinezkoen, txirrindularien eta gainerako ibilgailuen arteko bizikidetza egokia ziurtatzeko. EAJ Durangotik lan egingo dugu Durangon bizikletaz ibiltzea gero eta errazagoa izan dadin eta COVIDen aurka elkarrekin pedalei ematen jarrai dezagun. Izan ere, pertsonentzat osasungarria izateaz gain, bizikletak tokiko merkataritzarentzat eta ekonomiarentzat ere osasungarriak direla frogatu da, hori baita gure helburu nagusietako bat.



DURANGALDEAN ESTETIKAREKIN,

ZERIKUSIA DUEN NEGOZIORIK BADUZU,

JARRI EZAZU ZURE IRAGARKIA ANBOTON

Informazio gehiago **94 621 79 02** telefono zenbakian





NOR DA?

Lekuko bati eskerrak, harribitxi batzuk ostu dituen
lapurraren deskribapena dugu:
Beheko irudiko nor da?


Gizonezkoa
Gaztea
Argala
Altua
Ile kolorea: beltza



SUDOKUA

Kokatu beheko harribitxiak
lauki zurietan.




6'6
6'4
6'2
6'0
5'10
5'8
5'6
5'4
5'2
5'0
4'10
4'8

TOPATU ITZAZU

Elementu hauek beheko irudian ezkutatuta daude. Non daude?








TXIKITIK HANDIRA

Ordenatu beheko loreak txikitik handira.



DOMINOA


Marraztu dagokion irudia lauki zurietan.



MARGOTU



Margotu ezazu beheko irudia gura duzun moduan.
Adibide bat daukazu alboan margotzen laguntzeko
Moztu marretatik eta egin kareta bat.





INAUTERIE TAKO ARGAZKI LEHIAKETA 2021

Webgunean botorik gehien
jasotzen duen argazkiaren egileak
Errigoraren saski bat irabaziko du

Eman zure botoa
otsailaren 18tik
22ra arte

*Oinarriak anboto.org webgunean



'Gigante'

ZIRKUA BERRIZEN eta ELORRION :

Txikiaren eta egunerokoaren handitasunaren bila

Datozen egunetan, La Pequeña Victoria Cen konpainiak zirkua, antzerkia eta poesia uztartzen dituen ikuskizuna ekarriko du Durangaldera: *Gigante*. Otsailaren

13an Berrizko Berrizburu kiroldegian izango dira, 19:00etan. Bestalde, otsailaren 14an Elorrioko Arriola antzokiko oholtzara igoko dira, 16:00etan.

Otsailaren 12an

ELORRIO film eszenikoa
'Omyakon. Habitación 101' (Khea Ziater), 19:00etan, Arriola antzokian.

ELORRIO bakarriketa
'Txiki' bakarriketa, 19:00etan, Elorrioko Gaztetxean. 33. urteurrena dela-eta.

ZORNOTZA solasaldia
'Amaren intxaurrak' (Pirritx, Porrotx eta Marimotots), 17:15ean, Zornotza Aretoan.

ZORNOTZA musika
Supercremalleras, 19:00etan, Zelaietako kontzertu gelan.

Otsailaren 13an

DURANGO ikastaroa
'Ongi Biziaren Filosofia' (Hizlaria: Adriana Rodríguez Salazar soziologoa) 10:00etatik 14:00etara, San Agustín kulturgunean. Andereak elkarteak antolatuta. Lekua mugatua izanik, sarrera aurretiaz hartu behar da, Arte eta Historia Museoa.

ELORRIO akroyoga
Urteurrena: Akroyoga sokak, 11:00etan, Plazan. Elorrioko Gaztetxearen 33. urteurrena dela-eta. **Urteurreneko argazkia**, 13:12an.

ZORNOTZA musika
Goazen 7.0, 12:30ean, Zornotza Aretoan. Bigarren emanaldia, 17:00etan.

Otsailaren 14tik 18ra bitartean

ELORRIO erakusketa
Urteurrena: AHTaren inguruko erakusketa, 11:00etan, Gaztetxean. 33. urteurrena dela-eta.

Otsailaren 12tik 16ra arte

DURANGO lehiaketa
Mozorroren argazki lehiaketa. Bakoitzaren argazki indibiduala honako e-mail honetara bidali behar da: kultura@durango.eus (izen-abizen eta telefonoagaz). Saria: Durangoko Dendak Bai elkarte dendetan erabiltzeko 100 euroko erosketa-bonua. Oinarriak: www.durango.eus atarian. **Inauterietako bideoa**, otsailaren 18ra bitartean: Kriskitin dantza taldea eta Durangoko Surrandiak.

IURRETA lehiaketa
Mozorroren argazki lehiaketa. Sare sozialen bidez zabaldu behar dira argazkiak lurretako Jai Batzordea etiketatuta: @ijorretakojaibatxordea (Instagram) eta lurretako Jai Batzordea (Facebook). Honako telefono zenbakietara ere bidali daitezke: 666 101 373 edo 618 796 578.

ZALDIBAR lehiaketa
Mozorroren argazki lehiaketa. Argazkiak whatsapppe bidali daitezke honako telefono zenbakira: 688 630 885. Saria hiru ataletan banatu dituzte. 16 urtera artekoen artean, 1. saria lortzen duenak herrian gastatzeko 60 euroko erosketa-bonua irabaziko du, eta 2.ak 30 euroko bonua. 16 urtetik gorako atalean, 75 euroko eta 45 euroko erosketa-bonua lortuko dute, hurrenez hurren, 1. eta 2. saria moduan. Familia argazkirik onenak 90 euroko bonua lortuko du.

Otsailaren 16an

BERRIZ ikuskizuna
Zinbulu (Errotzen-Zibulu), 18:00etan, Berrizburu kiroldegian.

ELORRIO musika
Iheskide, 19:00etan, Arriola antzokian.

ZORNOTZA zinekluba
'El escándalo', 19:00etan, Zornotza Aretoan.

Otsailaren 17an

ABADIÑO ipuinak
Ana Apika ipuin kontalaria, 17:00etan, Udal Mediatekan. 4-5 urteko umeentzat. LHko 1. 2. eta 3. mailako umeentzat, 17:45ean.

ELORRIO pailazoak
'Bart, non ote nintzen ni?' (Txirri, Mirri eta Txiribiton), 17:00etan, Arriola antzokian.

Otsailaren 19an

ELORRIO errezitaldia
Munduko Emakumeen Errezitaldia: Ameli eta Xirikituen Jostunak, 19:00etan, gaztetxean. Elorrioko Gaztetxea sortu zeneko 33. urteurreneko egitarauaren barruan.

ZORNOTZA musika
Gauero+: Dientes de Luna, 19:00etan, Zelaieta Zentroko kontzertu gelan.

Otsailaren 20an

BERRIZ antzerkia
'Porno vs Afrodita' (Benetan be), 19:00etan, Berrizko Kultur Etxean.

ELORRIO errezitaldia
Nikotina & Little Martin Selektah + Perlata, 18:00etan, Arriola antzokian. Elorrioko Gaztetxearen 33. urteurrenaren barruan. **Omenaldia**, 13:00etan, San Josen.

DURANGO antzerkia
'La verdadera historia de la muerte de Francisco Franco' (Alfonso Torregrosa), 19:00etan, San Agustín kulturgunean.



Zinema

:: Berriz KULTUR ETXEA

• **En guerra con mi abuelo**
barikua 12: 17:00
domeka 14: 17:00

:: Durango ZUGAZA

• **La Sra. Lowry e hijo**
barikua 12: 19:30
zapatua 13: 19:30
domeka 14: 19:30
astelehena 15: 17:30/19:30
martitena 16: 17:30/19:30
eguztana 17: 18:30
• **La chica del brazalet**
barikua 12: 19:30
zapatua 13: 19:30
domeka 14: 19:30
astelehena 15: 17:30/19:30
martitena 16: 17:30/19:30
eguztana 17: 18:30

• **Las niñas**
barikua 12: 19:30
zapatua 13: 19:30
domeka 14: 19:30
astelehena 15: 19:30
martitena 16: 19:30
eguztana 17: 18:30
• **El chico**
zapatua 13: 18:00
domeka 14: 18:00
astelehena 15: 18:00
martitena 16: 18:00
• **Gusanos**
zapatua 13: 17:30
domeka 14: 17:30

:: Elorrio ARRIOLA

• **Perfumes**
zapatua 13: 19:00
domeka 14: 19:00
astelehena 15: 19:00


:: Zornotza ARETOA

• **Foto de familia**
domeka 14: 19:00
astelehena 15: 19:00
• **El finak**
domeka 14: 12:00



merkataritza
gida sarean

anboto.org/gida



***Ezagutu eta erabili Durangaldeko
merkataritza gida BERRIA
euskaraz eta sarean!***

Merkataritza gidan parte hartzeko deitu: 946 217 902
Argazkiak - Datuak - Kokapena
(urtean 50€)

“Ilusiorik gehien egiten didaten gauza biak lortu ditut: 'Go!azen'-en agertzea eta Athleticen jokatzeta”

Euskarazko telesail arrakastatsuen zazpigarren denboraldia gaur amaituko da; Zamalloak Aitorren papera egin du, Basakabiko mantentze-langilearena



Endika Zamalloa
Bereziartua
'Golazen 7-0'
telesailko kidea
Durango | 1985

Nondik irten zuen Go!azenen parte hartzeko aukerak?

Lagun baten bitartez heldu zitzai-
gun aukera, Go!azen telesailerako
jende bila zebiltzala eta. Kirol
denba batean lan egiten dut. ER-
TEan geunden eta aukera ona
zela pentsatu genuen. Castinga

“**Antzerkian eta
telebistan desberdin
lan egiten da, baina
biak gustatzen zaizkit**”

prestatu nuen lehenengo. Gidoi
batzuk ikasi eta prestatu behar
izan nituen, eta etxean mugi-
korragaz grabatu ostean bidali
nituen.

**Udan egin zenituzten grabazio
lanak**

Bai, uztailean eta abuztuan, ba-
tez ere. Grabazio lanak ekain
amaieran hasi genituen, eta uz-
tail osoan zehar aritu ginen.
Baita abuztuan ere. Egia esateko,
enpresak erraztasunak eman
dizkit.

**Zelan gogoratzen dituzu grabazio
egunak?**

Oso giro ona eduki genuen eta
oso pozik egon nintzela gogora-
tzen dut. Lanaldi luzeak ziren
batzuetan, baina pozarren geratu
gara emaitzagaz. Egon dira egu-
nak 08:00etarako Donostian egon
garenak, eta arratsaldera arte
lanean egon garenak. Donostiako
El Pinar etxean eta Azpeitian (Gi-
puzkoa) egin ditugu grabaziorik
gehienak, eta, esandako moduan,
oso lan giro onean.

**Zelan konpondu zara Aitorren aza-
lean?**

Erronka bat izan da, baina asko
gustatu zait bere azalean ipin-
tzea.

**Aspalditik datorkizu antzezteko
grina.**

Durango Kurutziaga ikasto-
lako sasoietatik datorkit. Jose
Martin Urrutia 'Txotxe' antzerki-
gileak sartu zidan harra.

**Telebista ala antzerkia, zein gurago
duzu?**

Biak. Antzerkirako gehiago ikasi
behar da. Kontzentratu, memo-
rizatu, eta gero dena bota. Te-
lebistan beste modu batera lan
egiten da, beste metodologia bat
eskatzen du horrek, baina biak
gustatzen zaizkit.

**Futbolearen ere bazabiltza, Athletic
Genuine taldean.**

Astero egiten ditugu entrena-

menduak, Interneten bitartez.
Hainbat ariketa fisiko egiten du-
gu ordubetea.

Bizitzan ilusiorik gehien egi-
ten didaten helburuetariko bi
lortu ditut: Go!azenen agertzea eta
Athleticen jokatzeta. Urte eskasa
tokatu zait taldean egoteko, bai-
na heldu naiz.

**Baduzu beste proiekturik esku ar-
tean orain edo aurrera begira?**

Oraingoz ez. Lanera etortzen
naiz, eta futbol entrenamendu-
kin jarraitzen dut. Honen guzti
honen aurretik, hainbat saltsa-
tan ibili izan naiz beti, baina bizi
dugun egoera dela-eta orain base-
rrian nago, lasaiago.



Endika Zamalloa, grabazio egun batean.

TELEBISTA • ARITZ MALDONADO

Gaur, barikua, ETB1eko Go!azen
gazte fenomenoaren zazpigarren
denboraldia amaituko da. Telesail
honetako protagonistetariko baten
azalean sartu da Endika Zamalloa
durangarra. Gazte-gaztetan an-
tzerkigintzan hasi zen, Durango
Kurutziaga Ikastolan, Jose Martin
Urrutia 'Txotxe' antzerkigilearen
eskutik. Karrikako kidea 'Goenka-
le' telesailan ere parte harturikoa
da aurretik. Gazte durangarra
pozarren dago, telebista saio arra-
kastatsuan parte hartzeaz gainera

Athleticen Genuine taldeko kidea
ere badelako. Sasoi hobeak aile-
gatzen diren bitartean, ametsak
betez gozatzen jarraitu gura du.

“**Erronka bat izan da
Aitorren azalean
sartzea, baina asko
gustatu zait**”

saltsan

MAKALLAU

Saltsan

saltsan.com

Egoera berezi honetan
MAKALLAU SALTAN
KATERIN zabalik dago!

Enkarguak egiteko edo informaziorako,
telefonoz edo whatsapp bidez gugaz
kontaktuan jarri:

688 773 205 / 688 734 329

#etorritadastau #unezailetanerezureondoan

Adi, laster dator aurtengo edizioa!

Iurretako
XVIII. literatur
lehiaketa

Jarrai gaitzazu:

Iurretako
Elizateko Udala
HERRI BIBLIOTEKA

“Martxa hartzen genbiltzala harrapatu gintuen honek, baina ez genuen geldirik egon gura”

lheskide talde elorriarrak kontzertu bi eskainiko ditu martitzenean; otsailean diskoa grabatzera sartuko dira

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Izurriteak plan guztiak hankaz gora ipini arren, rockaren sugarrak bizirik dirau lheskide taldekoen artean. 2019ko Hatortxu Rock jaialdian itzulerako kontzertu jendetsua eskaini eta gero, hirukote lez jarraituko zutela iragarri zuten, eta 2020an hainbat kontzertu eskaintzeko asmoa agertu zuten. Baina martxoan, ezagunak diren arrazoiengaitik, euren jarduna eten behar izan zuten berriro ere. Otsailaren 16an, Gaizka Jareño 'Tronpi', Ibai Arrizabalaga 'Ibaiko' eta Xabier Gallastegi 'Xagu' berriro ere igoko dira Arriolako oholtzara; hirukote moduan publiko aurrean eskainiko dituzten lehenengo kontzertu biak izango dira martitzenekoak. Sarrera guztiak salduta daude.

Gogotsu zaudete kontzertuetarako?

Gure zorionerako, harrigarria izan da erantzuna. Bagenekien jendea gogotsu zegoela eta aforoa mugatua izango zela, baina sarrerak salgai ipini eta ordu bira deitu ziguten Arriolatik, agortu egin zirela esateko. Pentsa! Bigarren emanaldia antolatu genuen, eta beste horrenbeste. Eta badakigu jendea itxaroten dabilela, ea arau aldaetekin

sarrerarik libre geratzen den. Gu oso pozik gaude harreragaz. Urte arraroa izan da guretzat. 2020an kontzertu batzuk egitea aurreikusten genuen, baina ezin izan dugu bakar bat ere eskaini. Bat-batean aukera honek irten digu, herrian, etxean. Ba, bikain!

Arraroa, baina etxean eta etxekoe-kin.

Bai, arraroa arrazoi bikoitzagaitik. Osasun protokoloarengaitik jendea eserita eta elkarrengandik distantzia batera egongo delako, eta guretzat ere arraroa, hirukote lez publiko aurrean eskainiko dugun lehenengo kontzertua izango delako. Guretzat erronka bat da bigarren gitarra bat ez edukitzea zuzenekoetan, baina motibatuta gaude.

Martxa hartzen harrapatu zaituzte izurriteak.

2019an berriro hasi ginen elkartzeko, lokalean, eta Hatortxu Rockeko proposamena jaso genuen. Kontzertu hori itzela izan zen guretzat. Egundoko sentsazioa izan zen, ikusi genuelako jendeak sekulako gogoia zuela. Kontzertu horren ondoren, berriro elkartu eta zenbait aukera ipini genuen mahai gainean. 'Kata'-k taldea uztea era-

baki zuen, lan kontuengaitik, eta gainerakook hirukote moduan jarraitzea erabaki genuen. 2020an kontzertu batzuk jotzea zen gure asmoa, udazkenean batez ere. Hurrengo pausoa estudiora joatea zen, disko berria grabatzera. Pandemiaren ondorioz, dena geratu behar izan genuen, baina, hala ere, otsailaren bigarren hamabostaldirako estudioa hartuta geneukanez, diskoa grabatuko dugu. Haritz Harrerey gaz grabatuko dugu.

Hala ere, ez zarete geldirik egon.

Martxa hartzen genbiltzala harrapatu gintuen honek guzti honek, baina ez genuen geldirik egon gura, berriro hutsetik hasi behar ez izateko. Aukera izan dugun bakoitzean, edozein ekimen edo proposamen

baiezkoa eman diogu. Itxialdian *Bizitza vs kapitala* abestia grabatu genuen, ahal izan genuen moduan eta bideo batez lagunduta; gero, Berbaroren *Gazte Klak!* ekimeneko streaming bidezko kontzertua eskaini genuen. Udan eta udazkenean ezin izan dugu kontzerturik eman, baina kantu berriak sortzeko, hitzak idazteko eta disko berria prestatzeko baliatu dugu denbora. Egokitze prozesu bat ere egin behar izan dugu, hirukote lez funtzionatzera ere ohitu behar dugulako. Horrez gainera, entsegu lokalak zabalik egon dira batzuetan, beste batzuetan ez... Dinamika iraunkor bat duzunean gatx da, baina errutina minimo bat hartzeko modurik ez dagonean, gatxagoa.

Diskoa grabatzera sartuko zarete aste honetan, beraz. Eta gero, zer?

Egia esan, eta zintzo esanda, ez daukagu ezer planeatuta. Gure ustez, disko baten grabaketa sostengatzen duena zuzenekoak dira; zuzenekoetarako sasoirik egokiena ez izatera, diskoa ateratzeko ere ez da. Oraingoz itxaron egingo dugu, zuzenean aurkezteko aukera hobeak egon bitartean.

Kantak prest ditugu eta grabatu egingo ditugu. Gero, ikusiko dugu. Ez dugu ohikoa dugun moduan egingo, disko luze bat kaleratu eta gero urte bira aurkezpen bira egin. Gu nahikoa klasikoak izan gara alde horretatik. Gogoia eta ilusioa ditugu eta disko berriak itxura polita du, gainera.



Gaizka Jareño, Ibai Arrizabalaga eta Xabier Gallastegi.

Gai librean

?

Zer ezkututzen dute agerian daudenean maskaren atzeko izaki horiek guztiek? Harrabotsa baino ez darie aho estaliei erreberberazio akustiko mingarri honetan? Nortzuk dira? Aho-zuri, aho-ur-din, aho-paper, aho-kotoi, aho-garden... denak ahozabal? Edo aho uhal?

Ume pandemikoek ikasiko ote dute noizbait dakusatena prozesatzen? Nor diren eta nor garen aditz taulez harago bereizten? Ikasiko ote dute arrakaletan ahots-korden ahots-hariak sintonizatzen? Edo oraina den gero hontako haur guztiak ahoak itxita jaioko dira ZIRRIBORROAK ETA GERO bildumako Kintsugi ipuinean bezala? Ezpainak itsasita? Alternatiba eta utopien etorkizuna irudikatze gaitasun eza disimulatze?



Libe Mimenza Castillo
Kazetaria

Aho-zuri, aho-ur-din- aho-paper. aho-koti, aho-garden... denak ahozabal? Edo aho uhal?

Ume pandemikoek ikasiko ote dute noizbait dakusatena prozesatzen?

Noiz hasten da ume bat bere bu-ruarekin hizketan? Klasera joatean azalduko dio irakasleak lezioa? Klasifikatu gabe, klase orori berdin? Edo dena berdin, klasea betiko mataza izan dadin? Eta inork irakurriko du eskola birtualetan testu libururen bat? Edo akaso giza burmuinen memoria digitaletara deskargatuko da

Wikipedia? Ez da daturik beharko? Jakintza beste osagarri bat bihurtuko da? Jantzi eta erantzuteko? Irrealitate hori ez dator bat errealitate honekin, ezta?

Negar ez egiteko jartzen dizkieten pantailetan jendeak elkar ukitzen duen bitartean haiek zergatik ez dituen inork ukitzen galdetzen duen haurtxoari zer esan? Mosurik gabeko mundu batean zeintzuk dira plazebo plazerak? Otsailean loratzen diren mimosak? Neguko itsasoak? Perimetro barnean olaturik ez dela ahazteko bisitatzen diren pistinak? Logaritmo batek ez ote luke hobe antolatuko maskarada hau?

Nork ezabatu du «zentzua» hiztegitik? Google ere ez da sen ona bilatzeko gai? Zero emaitza urrunegi dago Zero COVID estrategiatik?



Aitor Calle Garitaonandia
Durango | 1993

Xabier Calle Garitaonandia
Durango | 1998

Tabirako Baque taldeko jokalariek

“Erasoan dugu arazoa; ez gabiltza puntu nahikoa sartzen eta portzentaje eskasekin gabiltza”

Tabirako Baquek EBA mailari eutsi ahal izateko, zertan hobetu behar duten azaldu dute Aitor eta Xabier Calle anaiak

SASKIBALOIA • JOSEBA DERTEANO

Tabirako-Baque saskibaloit taldea EBA mailan jokatzeko, bigarren urte jarraian. Iaz eutsi egin zion mailari eta aurten sufritzen dabil: azken-aurreko dago, hiru garaipenagaz eta zortzi porrotagaz. Maila horretan egote hutsak meritu handia du, etxeko jokalariekin baino ez dutelako jokatzeko. Filosofia horren iturritik irten dute Aitor Calle taldeko kapitainak eta Xabier Calle bere anaia gazteak.

Liga erdia joan da. Orain arte egin eta ikusitakotik zer ondorio ateratu duzue?

Xabier Calle: Orain arte eduki dugun akatsetariko bat izan da ez gurea hainbeste zentratu gure lanean, eta epaileekiko kexa larri izan ditugula. Horregaz batera, ez dugu zorte handirik eduki. Galdutako zortzi partiduetatik seitan irabazteko aukera izan dugu, baina batekoagaitik edo besteagoagaitik ez dugu lortu.

Aitor Calle: Joan zen astean bilera bat egin genuen taldean, orain artekoa aztertzeke eta estatistikei errepaso bat emateko. Ikusten da sartutako eta jasotako puntuen artean dagoen aldea txikia dela. Horrek esan gura du partidu asko detaileengaitik galdu ditugula.

Partiduetako azken txanpan hobeto jokatzeko falta izan da?

X.C.: Hori da. Partidurik gehiene-

tan aurretik heldu gara atsedenaldira. Bat kenduta, beste denetan esango nuke. Estatistikei begira, partiduko, batez beste, 60 puntu sartu eta 62 jasotzen ditugula ikusi dugu. Puntu biko aldea baino ez dago. Baina zortzi porrot eta hiru garaipen daramatzagu.

Estatistikak errepasatuta, zuek baino puntu gehiago jaso dituzten sei talde daudela ere ikusi daiteke. Datu horretan, sailkapenaren erdian zaudete.

X.C.: Arazoa, batez ere, erasoan dugu. Ez gabiltza puntu nahikoa sartzen eta portzentaje eskasekin gabiltza, batez ere hiruko marra-tik.

“

Aitor Calle: “Sartutako eta jasotako puntuen artean aldea txikia da; partidu asko detaileengaitik

”

A.C.: Lautik bat sartzen dugu hiru-koetan. %25eko portzentajea ez da oso ona. %35 inguruan egon behar-ko genuke. Beste faktore bat ere gehitu gura nuke. Urtarrilean bost partidu jokatu ditugu eta eurretari-ko lau etxetik kanpora izan dira: Iruñean birritan, Logroñon... Denbora gutxian partidu asko, hara eta

hona bidaiatu behar... Horrek ere badu bere eragina.

Zuen aita, Gorka Calle, Tabirako klubeko zuzendaritzan egon da, Zaldia saskibaloit taldeko presidente izan da eta Euskadiko federazioan ere egon da. Zuen saskibaloirako zaletasuna zenbateraino zor diozue aitari?

A.C.: Oso-osorik zor diogu. Txikit-astebururo eramaten gintuen saskibaloian jokatzera. Baskonia ikustera ere joaten ginen beragaz.

X.C.: Nire kasuan, figura bat barik bi nituen txikit. Aita eta anaia. Beraz, ez da arraroa ni saskibaloit jokalarit irten izana.

Aitor, iaz taldeko kapitain izateko ardura hartu zenuen. Zertan aldatu da zure lana jokalarit bakarrik izatetik kapitain ere izatera?

A.C.: Aurtengo denboraldian de- zente aldatu da, iaz baino gehiago. Liga hasi baino astebete lehenago, entrenatzaileak taldea uztea erabaki zuen. Tomas de Castro etorri zen bere ordez, baina, jakina, liga has- tear zegoen eta denbora gutxi zuen taldearen dinamika ezagutzeko. Anaia eta biok beragaz batu ginen eta azalpen guztiak eman geniz- kion. Izapideen kudeaketa egitea ere egokitzen zait: kanpoan jokatu ahal izateko paperak eramatea eta antzerakoak.

Hau da, COVIDaren eta osasun kri- siaren ondorioak. Zer puntutaraino

baldintzatu du taldearen jarduna?

A.C.: Inpakturik handiena hasie- ran igarri genuen, talde guztiak entrenatzen zirelako. Temperatura hartu, kantxa eta baloiak desinfek- tatu, ezin dutxarik erabili... Orain, eremu gorrian gaudenez, nagusiok baino ez gara entrenatzen eta ez dugu dena beti desinfektatu behar.

Egiten duzue COVIDaren testik?

A.C.: Bai, partiduak jokatu baino lehen, barikuetan normalean; antigeno probak egiten dizkigute. Derrigorra da. Emaizak federazio- ra bidaltzen ditugu eta denak nega- tiboak badira jokatzeko baimena ematen digute.

“

Xabier Calle: “Ez dut ulertzen federazio batzuek jokatzeko duten nahia. Ez du zentzurik adin

”

Beraz, astero egiten dituzue probak.

X.C.: Bai, baina uste dut klubean gure taldea dela egiten duen ba- karra. EBA maila Espainiako fede- razioari dagokio eta eskakizune- tariko bat da. Klubeko gainerako taldeak Euskadiko eta Bizkaiko federazioek kudeatutako mailetan dabilta eta ez da horrelakorik egi-

ten. Nik, esaterako, junior mailako neskak entrenatzen ditut eta ez da testik egiten.

Neurriak hartu beharko lirakeela uste duzu?

X.C.: Ez dut ulertzen federazio ba- tzuek lehiatzeko duten nahia. Adin batzuetan lehiatzeak ez du zentzu- rik. Entrenatzeak bai, baina lehia- tzeak ez, gaur egungo egoeran.

Xabier, zu bost urte gazteagoa zara. Zelan ikusten duzu zeure buruan taldean?

X.C.: Hiru-lau urte daramatzat lehenengo taldean. Jokalaririk beterranoenak iaz utzi zuten taldea: Arkaitz Gurrutxagak eta Roberto Onaindiak. Taldeko kapitainak izan dira. Beraz, orain gaudenok urte kopuru antzerakoa dara- magu, pare bat urte gorabehera. Beraz, taldean nahikoa pisu dau- kadala uste dut, gainerako guztien moduan.

Xabier, lehenengo taldera heltzeko bidea ez da erraza izan zuretzat. Lesio gaizto bat baino gehiago izan duzu.

A.C.: Kadete mailan nenbilenean, belauneko lesioa izan nuen denbo- raldi hasieran. Ebakuntza egiteko gaztegia nintzen, urtebete itxa- ron nuen. Ebakuntza egin zidaten. Kantxetara bueltatu eta denboraldi hartako azken hiru-lau partiduak jokatu nituen. Hurrengo denboral- di hasierako entrenamendu batean berriro lesionatu nintzen. Urtebe- terako saskibaloia uztea erabaki nuen. Orduan, aita Zaldia klubeko entrenatzailea zen eta hara batzea proposatu zidan: gutxienez entre- natzera, edo gura banuen jokatzera. Urte hasiera hartan, Tabirakoko entrenatzaileak deitu eta klubera berriro batzea proposatu zidan.

Aitor, Xabierren etapa zail horretan zein izan zen anaia nagusiaren pa- pera?

A.C.: Mutil gogorra da. Gogoan dut ebakuntza egin aurreko ur- tea. Ariketa asko egin behar izan zuen belauna indartzeko, eta oso diziplinatua izan zen: igerilekuan, bizikleta gainean... Berritri jokatu gura bazuen, eskatutako dena bete behar zuela buruan sartuta zeu- kan eta dena egiten zuen.

X.C.: Etapa konplikatu hartan, anaia erregional mailako taldean zebilen, astelehenetan lagunarte- ko partiduak jokatzeko zutuzten eta beti animatzen ninduen partidu horietan parte hartzera. Bere al- detik, sekula ere ez zait animorik falta izan.

Durango Rugby Taldeak egoitza berria du bere beharrianak asetzeko, eta herriko kirol elkarteei ere atea zabaldu diete erabili ahal izateko

Bulego bategaz, erabilera anitzeko gunee bategaz eta bestelako azpiegiturekin hornituta, askotariko ekimenak gauzatu ahal izateko azpiegitura berria dute



Durango Rugby Taldearen egoitza berria Goienkalea kalean eta Rugby Tabernaren ondoan dago.

ERRUGBIA • JOSEBA DERTEANO
Durango Rugby Taldeak egoitza berria du eta klubak askotariko beharrianak asetzeko elkargune moduan darabil. Izan ere, bulego bategaz, erabilera anitzeko gunee bategaz eta bestelako azpiegiturekin (komuna, garbategia, biltegia...) hornituta dago. Egoitza be-

rria Goienkalea kalean dago, Rugby Tabernaren ondoan, eta klubaren jabetzakoa da. Gainera, egoitza libre dagoen momentuetan, euren azpiegitura erabiltzeko atea zabaldu diete Durangoko kirol elkarteei: batzarren bat egiteko, hitzaldiak eskaintzeko... Aukera berdina eskaini diete

Klubaren barruan lantalde bat sortu dute, eta euren ardura izango da egoitza dinamizatzea

klubeko bazkideei, eta baita babesleei ere. Izan ere, DRTkoek badakite zer den hara eta hona ibili beharra batzarrak egiteko. Batzar asko Rugby Tabernan egin izan dituzte, eta Pinondon eta Jesuitetan ere ibili izan dira. "Gune horien ordutegietara moldatu behar genuen. Orain, egoitza berriak askoz ere aukera

gehiago ematen digu", azaldu du Aratz Gallastegi DRTko kideak. Egoitza berria aproposa izango da, besteak beste, jokalariei gazteen gurasoei batzartzeko zein entrenatzaileek eurek bilerak egiteko.

Gaur egungo egoera hobetzen denean, bestelako ekimenak antolatu gura dituzte

Etorkizunera begira
Etorkizunera begira ere badituzte asmo edo ideiak. "Aurrera begira, mugimendua eman gura diogu", azaldu du. Aukeren artean dago jokalarientzat ikasketa gela moduan erabiltzea; hau da, entrenamenduen aurretik edo ostean etxeko lanak egiteko aukera eskaintzea, horrela etxera entrenamendua zein ikastetxeko lanak eginda joan daitezkeen. Gurasoei begira, ikastaroak antolatzea ere badute buruan. Gaur egungo egoera hobetzen denean hasiko dira horrelako kontuez gogoeta egiten. Lokaleko gunee batean, errugbilarien arropa garbitzeko gunee sortu gura dute, garbigailua eta lehorgailua ipinita. Klubaren barruan lantalde bat sortu dute eta talde horren ardura izango da egoitza kudeatzea eta dinamizatzea.

Jokaldia

Itxialdiaren ondorioak

Itxialdiaren osteko itzulera ez da berdina izan kirolari guztiontzat. Izan ere, itxialdian bertan ere ez ditugu baldintza eta baliabide berberak izan, eta ondorengo entrenamenduetara itzulera ere ez dugu denok erritmo berdinean egin. Lehiaketak hasi zirenetik atentzioa eman du egoera desberdinak nabarmendu izan direla espainiar mailako korrikalarien artean. Batetik, lesioak gailendu dira, baina, bestetik, forma fisiko ona lortu eta oso marka onak egin dituen jende asko nabarmendu da. Lehenengoari dagokionez, esan behar da ez dela harritzekoa lesioak agertu izana. Kontuan hartu behar da bi hilabetez entrenatu gabe egotean ez dela soilik forma fisikoa galtzen,



"Gehiago entrenatuta gehiago hobetuko dugula uste dugu, baina inportantea da gorputzari erreku-perazio egunak ematea"

"Ondorioztatu dezakegu, ezohiko egoera batean normaltasunera itzulera lasai egin behar dela"

baizik eta muskulu, zain eta giltzadurak ia inolako mugimendurik gabe izan ondoren, ahulduta gelditzen direla. Horregatik, itzulerako entrenamenduak oso lasaiak eta progresiboak izan beharko liratekeela deritzot. Baliteke, hainbat eta hainbat, korrika egiteko gogoak itsututa, erritmo

azkarregi batean itzuli izana entrenamenduetara eta lanera; edo besterik gabe, gorputza ezohiko egoera batean izanik lesionatu izana. Txanponaren beste aldean izan direnei dagokionez, hau da, oso emaitza onak lortzen ari direnei dagokionez, baliteke entrenamenduetako erritmoa jaisteak lagundu izana. Izan ere, askotan uste dugu gehiago entrenatzeagatik gehiago hobetuko dugula, baina oso garrantzitsua da erreku-perazio egunak ematea gorputzari, entrenamenduak asimilatu eta errendimendua igo ahal izateko. Beraz, ondorioztatu dezakegu, batetik, ezohiko egoera batean normaltasunera itzulera lasai egin behar dela, eta, bestetik, atsedena ezinbestekoa dela errendimendu on bat lortzeko.

DURANGALDE



Egunsentia Alluitzen

Goizean goiz ibiliz gero, paisaia ikusgarri honetaz gozatu daiteke Alluitz mendiaren gailurretik. Lainoa ikusten da Udalatx, Anboto eta Aizkorri mendien artean, eta eguneko lehenengo eguzki izpiak irteten goialdeetatik. Asier Arteaga abadiñarrak atera du irudi eder hau.

KO TXOKOAK?



Urkiola ingurua

Urkiolan gora joanda, Saibigain mendirako bidean, Urkiolako Santutegia ikusten da beherago, zuhaitzez inguratuta, atzean Anbotoko mendilerroa duela. Ibilbide polita da Saibigainerakoa, ikuspegi ederrekoa.

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

Fernando Uribe
AGENCIA INMOBILIARIA
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

// AUKERA

KURUTZIAGA: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Igogailua. **C.E.E= E. 131.000 €**

IURRETA: 2 logela, komuna, sukalde-jangela eta egongela. Igogailua. **C.E.E= G. 115.000 €**

ANBOTO: 3 logela eta sukalde-jangela. Garaje itxia aukeran. **C.E.E=F 150.000 €**

ALDE ZAHARRA: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Despentsa-trastelekua. **C.E.E=F 130.000 €**

DURANGO: Etxebizitza altua. Eguzkitsua. Argitsua. 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Igogailua. Altxariek. **C.E.E=F 145.000 €.**

// ETXEBIZITZAK SALGAI

ARTZETAGAN: 2 logela,, 2 komun, sukaldea eta egongela-jangela. Terraza. Ganbara. Trastelekua eta garajea. **C.E.E=F 270.000 €**

IBAIZABAL: Apartamentua. Erdi berria. **C.E.E=A 180.000 €**

ERRETENTXU: Etxebizitza altua. Argitsua. 3 logela, komuna leihoagaz, sukaldea eta egongela terrazagaz. Garajea aukeran. **C.E.E=F 208.000 €.**

F.J. DE ZUMARRAGA: 116 m2. 4 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. 2 terraza. **C.E.E=F 216.000 €**

BIXENTE KAPANAGA: 83 m2. 3 logela, komuna, sukaldea, eskegitokia eta egongela. Terraza. Igogailua. **C.E.E=E 174.500 €**

ANTSO EZTEGIZ: 111 m2. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela handiak. Terraza. Garaje itxia. **C.E.E=E 249.000 €**

MASPE: 126 m2. 4 logela, 2 komun eta egongela terrazagaz. Ganbara eta garajea. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. **C.E.E=F 270.000 €**

J.M. ALTUNA: 3 logela, komuna eta sukaldea. Ganbara. **C.E.E=G. 215.000 €**

SAN AGUSTINALDE. 103 m2. DENA BERRIA. 3 logela. Bainugela. Egongela. Terraza.

ARTEKALEA: 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela handiak. Terraza. Trastelekua. **C.E.E=F 198.000 €**

IURRETA: MASPE. 3 logela eta komuna. Terraza. Igogailua. Berriztatua. **C.E.E=F. 160.000 €**

F.J. DE ZUMARRAGA: 4 logela, komuna eta egongela terrazagaz. Eguzkitsua. **220.000 €**

KURUTZIAGA: 80 m2. 3 logela, komuna, sukalde-jangela eta egongela. Terraza. Ganbara. BERRIZTATUA. **C.E.E=G 186.000 €**

MIKELDI: Etxebizitza altua. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Igogailua. **CEE= E. 160.000 €**

ABADIÑO: 1.000 m2-ko lursaila eraikitze baimenagaz. **250.000 €**

MATIENA: J.A. Unzueta. 3 logela, komuna, sukalde-jangela eta despentsa. Terraza. Igogailua. 2 trasteleku. **C.E.E=E 145.000 €**

EUBA: Berriztatua. 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiagaz eta egongela. Ikuspegi ederrak. **C.E.E=E 147.600 €.**

MAÑARIA: Etxebizitzak eta atikoak. Estreinatze. **125.000 €**

BERRIZ. BIDEGAIN. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Terraza. Garajea eta trastelekua. **C.E.E= F. 205.000 €**

// LOKALAK ETA GARAJEAK SALGAI

ASKATASUN ETORBIDEA: Garaje itxia. **24.000 €**

TRONPERRI: Garaje itxia. **21.000 €.**

ASKATASUN ETORBIDEA: 8.000€-tik aurrera garajeak.

ABADIÑO: 160 m2. **175.000 €**

F.J. DE ZUMARRAGA: Aukera. 114 m2. **150.000 €.** Negoziagarria.

// ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: San Inazio Auzunea. 3 logelako pisu ederra. Balkoi handia. Sukaldea, egongela eta 2 komun. Ganbara eta garajea.

DURANGO: Txibitena kalea. 4 logela. Logela guztiek kalera ematen dute. Komuna, egongela eta despentsa. Garajea eta trastelekua.

DURANGO: Komentukalea. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Ganbara. Ikuspegi ederrak.

DURANGO: Hegoalde kalea. Adosatua salgai. 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza eta lorategia. Ezin hobe.

// ABADIÑO

ABADIÑO: Torresolo kalea. 3 logela. Berriztatua. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua.

ETXEAZPIA KALEA: Pisu zabala, 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiagaz eta egongela. Ganbara. Garaje itxia aukeran.

// BERRIZ

ELIZONDO ETXETALDEA: Pisu guztiz eguzkitsua. Egongela, jangela, sukaldea, 2 komun eta 3 logela. Garaje itxia aukeran.

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea. // ATXONDO

ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

// LURSAILAK SALGAI

DURANGO: 2.360 m2-ko lursaila. Durangotik oso gertu. Zarratua eta zuhaitzekin. Eskaintza paregabea.

GAZTELUA: 10.000 m2-ko lursaila. Nekazaritza-lurra. Leku onean. Egokia.

IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

// BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

ELORRIO: Araunas auzoa. Baserri eder bat eraikitze. 10.000 m2. Ikuspegi izugarriak.

MAÑARIA: Aldegoina auzoa. 7.500 m2. Baserri ederra, leku lasaia eta baketsua.

MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m2 solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MAÑARIA: Baserria salgai. Herrian bertan. 3.000 m2-ko lursaila. Bizitzera sartzeko moduan. Oso polita.

ELORRIO: Aldape auzoa. Baserria, berriztatzeko. 3 hektareako lursaila. Prezioa: 115.000 €

MENDATA: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berriztatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO: Adosatu ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatze.

// BULEGOAK ALOKAIKUAN

ABADIÑO

20 m2-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

// GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

// LOKALAK ALOKAIKUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

// LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

MATIENA: 460 m2-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

www.inmoduranguesado.com

DURANGO
45 m²
TABIRA: 45 m2-ko (erabilgarri) apartamentua, saloia, sukalde (amerikarra) jantzia, Logela 1, bainugela 1. Ezin hobe. Garajea.
169.000 €. C.E.E: Bidean

MATIENA
2 logela
51 m²
SOLAGUREN: Solaguren. 51m2 erabilgarri. Logela 2, saloia, sukalde jantzia, despentsa, bainugela 1 eta ganbera handia. Igogailua.
125.000 € C.E.E: F. Negoziagarria

DURANGO
67 m²
2 logela
SASIKOA: Sukalde jantzia, egongela eta komuna. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du. Hegoalde. Argitsua. 28 m2-ko garaje itxia eta 3m2-ko ganbara barne. Igogailua.
229.000 € C.E.E:E.

DURANGO
260 m²
ANTSO ESTEGIZ ZUMARDIA: Adosatu ezin hobe, 260 m2 erabilgarri lau solairutan banatuta. Distribuzio bikaina. Terrazak. Garajea 2 autorentzat eta txokoa. Txokotik lorategira irten daiteke.
525.000 €

ABADIÑO
11.200 m²
MENDIOLA AUZOA: 500 m2-ko bifamiliarra eraikitze baimena duena. Etxeak beheko solairua eta lehenengo solairua (+ sotoa) izan ditzake. Laua, sarbide errazekoa eta argitsua. Ura eta argia partzelan bertan.
225.000€ + BEZ

MUNTSARATZ
3 logela
81,7 m²
Arlozabal: 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Balkoia. 10 m2-ko ganbara. Eguzkitsua. Igogailua.
189.000 €. C.E.E: E

//DURANGO

BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

EZKURDI PLAZA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Igogailua. **LEHEN 321.500 € / ORAIN 300.000 € / E.E.Z=F**

FRAY JUAN DE ZUMARRAGA: 3 logela, sukaldea, egongela, bulegoa eta komuna. **220.000 € / E.E.Z=E**

GOIENKALE KALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. 155.000 € / E.E.Z=G

MURUETATORRE: 2 logela, sukaldea balkoiagaz, egongela eta 2 komun. Igogailua. Ganbara eta garajea. **238.000 € / E.E.Z=E**

SANTIKURUTZ KALEA: Etxebizitza bifamiliarra eraikitze 600 m2-ko lurzorua. **LEHEN 640.000 € / ORAIN 550.000 €**

TXATXIENA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. Garajea eta trastelekua. **LEHEN 390.000 € / ORAIN 375.000 € / E.E.Z=E**

// ABADIÑO

ZELETABE: 3 logela, egongela, sukaldea eta 3 komun. Terraza. Garajea eta trastelekua. **LEHEN 342.576 € / ORAIN 278.000 € / E.E.Z=E**

// ATXONDO

ZIARRETA KALEA: 3 logela, sukaldea, despentsa, egongela eta komuna. 2 balkoi. Ganbara eta garajea. **160.000 € / E.E.Z=G**

// ZORNOTZA

GUDARI KALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Terraza. **240.000 € / E.E.Z=D**

// BERRIZ

ANDIKONA AUZOA: Berreraikitze baimena. **460.000 €.**

BERRIZBEITIA KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta balkoia. **120.000 € / E.E.Z=F**

ERROTATXO KALEA: 3 logela, sukaldea balkoiagaz, egongela eta komuna. **100.000 € / E.E.Z=G**

LEARRETA MARKINA: 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia. **102.000 € / E.E.Z=E**

// IURRETA

AMILBURU MUSIKARIEN PLAZA: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Terraza. Igogailua. Ganbara eta garajea. **LEHEN 276.000 € / ORAIN 265.000 € E.E.Z=E**

FAUSTE AUZOA: Baserria. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Ganbara. Lurzoruagaz. **300.000 € / E.E.Z=G**

OROZKETA AUZOA: 4 logela, 2 sukalde, egongela eta 2 komun. Terraza. Lursailagaz. **LEHEN 650.000 € / ORAIN 595.000 € / E.E.Z=E**

// MATIENA

TRAÑABARREN: 3 logela, sukaldea, despentsa, egongela eta bainugela. 2 balkoi. Igogailua. Ganbara eta garajea. **LEHEN 220.000 € / ORAIN 210.000 € / E.E.Z=E**

// OTXANDIO

ARTEKALEA KALEA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. **60.000 € / E.E.Z=G**

// BERRIAK

DURANGO

TXIBITENA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Igogailua. Ganbara eta garajea. **250.000 € / E.E.Z=E**

Eskelak jartzeko: 946 816 558
edo anboto@anboto.org

Eskela mota guztiak

- Anboto paperean + anboto.org-n: 100€
(Anboto txartela dutenentzat 90€)
- Paperean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)
- Webgunean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)

Botikak

BARIKUA, 12 · 09:00-09:00	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
ETXEBARRIA Montevideo etorb. 2. - DURANGO	DOMEKA, 14 · 09:00-09:00
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	DE DIEGO Intxaurreondo 22. - DURANGO
09:00-22:00	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	ASTELEHENA, 15 · 09:00-09:00
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	SAGASTIZABAL Askatasun etorb. 19 - DURANGO
ZAPATUA, 13 · 09:00-09:00	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO	09:00-22:00
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
09:00-13:30	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
DE DIEGO Intxaurreondo 22. - DURANGO	MARTITZENA, 16 · 09:00-09:00
ETXEBARRIA Montevideo etorb. 2. - DURANGO	MUGICA Andra Maria 9 - DURANGO
SARRIA Sasikoa 17, DURANGO	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO	09:00-22:00
UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
NAVARRO ARTEKALEA 6 - DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANGO	EGUAZTENA, 17 09:00-09:00
CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO	BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANGO
JAIO-ABENDIBAR Errekakale 6. - ELORRIO	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
FARMAZIA MATIENA Trañabarren 15. - ABADIÑO	09:00-22:00
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA	EGUENA, 18 · 09:00-09:00
GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA	NAVARRO Artekaleta 6 - DURANGO
09:00-14:00	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA	09:00-22:00
09:00-22:00	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENEKO 14:00AK ARTEKO EPEA

GOZATU GOZATEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11. DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozategia

Zorionak, **Kattalin (837. alea)**!
Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuei egokitu zaizue. Oparia eskuratzeko txartela gura duzuenean jaso dezakezue lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.

Zorionak zure lehenengo urtean, txiki-txu! Muxu potoloak familia guztiaren partez.

Zorionak, **Paule**. Muxu sorta bat familiaren partez! Ondo pasa urte-betetzea eta ez ahaztu mozorroa!

Zorionak, **Ari!** Otsailaren 16an 4 urte egingo dituzu. Danak mozorrotu eta ospatuko dugu. Muxu potolo bat guztion partez.

Zorionak, **Ekaitz!** Hamabi urte jada! Txokolatie txurruekin jan biherko da!

Zorionak, **Intza!** Otsailaren 10ean 11 urte egin zenituen. Muxu potolo bat etxekoan partez. Askok maite zaitugu!

Orain denok batu ezin gaitezkeenez, amamaren urtebetetzea txin-txin batekin ospatuko dugu. Zorionak eta egun ona pasa.

Zorionak, **Garitxu!** Hemendik ilargira maite zaitugu. Alizetxu, aita eta amaxo.

Urtarrilaren 24an **Elenek** 7 urte egin zituen eta otsailaren 2an **Oinatzek** 9 urte. Zorionak, bikote! Mosu potolo bana zuen aitaren eta amaren partez.

Otsailaren 13an da urtebetetzea Otxandioko mutiko jatorrenarena, urte bi bete ditu ta **Ur** dauka izena, aitite-amamen partez zorionak maitea!

Eguraldia		
ZAPATUA	16° / 6°	
DOMEKA	16° / 8°	
ASTELEHENA	14° / 8°	
MARTITZENA	14° / 7°	
EGUAZTENA	13° / 7°	
EGUENA	14° / 8°	

"Ezagutzen ez nuen mundua aurkitu dut, eta konturatu naiz asko gustatzen zaidala"

Irma Berrizbeitia produktu naturalak eskaintzen ditu sare sozialen bitartez, I.B. Soaps izenpean. Abadiñon bizi den atxondarrak produktu naturalak probatzera animatu gura du jendea



Irma Berrizbeitia
Gruceta
i.b.soaps
Atxondo | 1978

ATXONDO • AITZIBER BASAURI

Konfinamendu sasoiaren prestatu eta uda ostean gorpuztutako proiektua da I.B. Soaps. Xaboiak, ukenduak, ezpain-babesleak eta bainurako gatzak egiten ditu Berrizbeitiak. Gabonetan, opariak egiteko hainbat enkargu izan zuen, gertuko jendearenak. Pozik dago hasiberri duen proiektuagaz.

Zelan sortu zen I.B. Soaps proiektua?

Betidanik gustatu izan zaizkit eskulanak. Era guztietakoak. Bada, Instagram kontua zabaldu nuen makillaje bereziei buruzko kontu batek erakarrita. Kasualitatez sartu eta sareetan dagoen mundua ezagutu nuen. Konfinamenduan denbora izan nuen eskulan mor-

doa egiteko, eta alabek animatuta egindako lanak sareetan zabaltzen hasi nintzen. Orduan eman nituen lehenengo pausoak.

Orain, xaboi naturalak eta ukenduak egiten dituzu.

Bai. Hainbeste gel hidroalkoholiko erabili ondoren, eskuak guztiz gorritzen zitzaizkidan. Bada, Interneten, produktu naturalak begiratzen hasi nintzen, informazioa batzen: xaboi naturalak zelan egiten diren, dauden aukerak... Informazio eta tutorial pilo dago. Ikastaroak ere bai. Ezagutzen ez nuen mundu bat aurkitu dut, eta konturatu naiz mundu hori izugarri gustatzen zaidala. Gero, ezpain-babesleekin hasi nintzen. Erromerozko eta kalendu-

lazko ukenduak ere egiten ditut, hilean behin. Izan ere, erromeroak hilabete egon behar du oliotan, mazeratzen. Otsaileko sorta laster aterako dut. Ez ditut asko ateratzen, eskariaren arabera joango naiz handitzen. Erromeroa kolpeetarako eta kontraktuetarako da ona, eta odol zirkulazioa aktibatzen. Kalendula, azala hidratatzeko, erreduretarako eta orbanetarako.

“

Glizerinazko xaboiak egiten dut, errazagoa delako maneiatzeko eta joko handia ematen duelako”

■

Hala ere, proba asko egin behar dira.

Piloa! Ezpain-babesleak egiteko, adibidez, proba mordoa egin nuen, hasieran erraza zela pentsatu arren. Probak eginez, sentsazioak ikusiz... gustukoa duzun produktua lortu ondoren, hurrengoagaz hasten naiz, kate baten modukoa da.

Erraza da xaboiak egitea?

Glizerinazko xaboiak egiten dut, errazagoa delako maneiatzeko eta joko handia (koloreak, testura, usaina...) ematen duelako. Gainera, segituan erabili daitezke. Glizerina solido neutroa urtu ondoren, olio esentzia naturalak, aukeratutako bedarrak... gehitzen dizkiot. Ez da gatxa xaboiak egitea, baina zelako propietateak izatea gura duzun, halako osagaiak gehituko dizkiozu.

Zeinek du arrakastarik gehien?

Labanda usaindun xaboiak. Jendea-ri asko gustatzen zaio.

Zein erronka dituzu etorkizunerako?

Gorputzerako krema ere egin dut, hidratatzailea. Eta, orain, xanpu solidoetan murgildu naiz. Hor ere aukera asko dago, ile mota asko dago eta. Kandela jasangarriak (ez daukate parafinarik) egiten ere hasi naiz, ontzi birziklatuak erabilia. Erabilitako olioagaz egiten ditut. Aurretik, olio garbitzeko prozesua egiten dut. Erle argizariagaz, sojagaz... ere egin gura nituzke kandelak. Bestalde, eguzkitako krema egiten ere ahalegindu gura nuke.

Erronka potoloak dituzu aurretik.

Gauza asko ditut buruan. Hori bai, neuk erabiltzeko sortzen ditut, gero, zelan doazen ikusita, zabaltzeko. Saltsa horretan ibili gura dut.

Noraino heldu gura zenuke proiektu honeguz?

Ez dut helburu zehatzik. Nik neuk erabiltzeko produktu naturalak egin gura ditut, eta gura duenarentzat eskaini. Bide honek nora eroango nauen ez dakit. Pausoak eman ahala joango naiz aurrera egiten.

Produktu naturalen mundu honek harapatu egin zaitu. Geroago eta gehiago erakartzen gaituen mundua da?

Badago produktu naturalekiko joera duen jende multzo bat, eta ni neu harritu egin naiz zenbat gustatu zaidan ikusita. Produktu hauek naturarekiko jasangarriak dira, onuragarriak, eta geroago eta ezagunagoak direla uste dut.

Lauhortza

Igor Galarza
Intxausti
Kazetaria



Matemerideak

Gaur. Otsailak 12. Bi-bat-bi. Gaurko egunez, baina 1809an jaio zen Charles Darwin. Duela 212 urte. Bi-bat-bi. Hain zuzen ere, azken hileotan ahoa lerdez bete zaigu bere lege famatu hura aipatzen.

Hamaika hilabete bete dira pandemia “hasi” zela. Gugana lehenago iritsi zen, baina gura baino beranduago onartu genuen. Hasieran aste birako, gero beste bi, beste bi... eta gero faseak. Uda heldu arte zelako datu jasa, arau jasa...

Eta uda heldu zenerako, bainujantziak gorde eta musukoak jantera. Uztailaren 16tik daramagu musukoak jantzita. Otsailaren 12ra arte, 212 egun. Bi-bat-bi. Kausalitatea. Matematika eta efemeride zalea denak hori du: horrelako datu bitxiak eskaintzeko prest dagoela.

Baina jendea nazkatuta dago. Nazkatuta dago datuak, berriak eta neurriak entzuteaz. Aspaldian baitago Durangaldea astelehen eta eguenetan belarriak zut jarri beharrean, zein herritan zabalduko diren tabernak eta zeinetan ez jakin ahal izateko. Nahiz eta asteon jakin dugun berriak berriena: herri guztietan tabernak zabalik.

Horixe da auzitegien ordena. Eta txertoa jasotzearen ordena? Badakigu ezer? Badakigu zeinek duten lehentasuna, berez, baina, agian, golf makila bat eroanez gero, atoa jarriko dizute. Boterearen ordezkarien sinesgarritasuna zalantzan bazegoen, aspalditik boterearen beraren sinesgarritasuna ere zalantzan jarria dago.

Gaur. Otsailak 12. Bi-bat-bi. Gaur LABik batzarra du, gaurtik bihar bitarte hamaika buelta eman ditzakeen erabakiak hartzeko, Darwinen, edo tira, auzitegien legeak onartzen baditu. Bi-bat-bi ez, bat-bat-bira deitu beharko dugu laster.

DURANGO KABILDUOSTE



Proiektu berria San Roke auzoan, erdigunetik pauso batera.

Informazioa

sukia
Zure etxean zaude Estás en tu casa

946 46 20 41
www.sukia.com